Erref. kodea: LAF-207-066

Izenburua: Piarres Larzabal antzerki lanak

"IBAÑETA"

HIRU GERTALDITAKO ANTZERKIA

JOKALARIAK :

-- 1 - OTSANDA,
-- 2 - LARROSA,
-- 3 - MAURIXKA,
-- 4 - IZEBA,

} Emazteak

-- 5 - HARTZA,
-- 6 - APFEL,
-- 7 - GOTON,
-- 8 - ROT,
-- 9 - KLEIN,
-- 10 - SATORBELTZ,
-- 11 - URKO,
-- 12 - ALI,
-- 13 - ZIMELA,
-- 14 - PASTOR,
-- 15 - OPIL,
-- 16 - PIZKOR,

} Gizonak

LEHEN GERTALDIA

TAULA - GAINA : Charlemagne'n denborako eskual barne-handiki bat. Oiala idekitzean, OTSANDA eta MAURIXKA ari dira ogi-opil egiten .... Ate kirrinka bat entzuten da.

OTSANDA : (ikaratua) : Maurixka, gorde laster irin hau .. Eta zuhaur ere gorde ... Charlemagne'n soldadoak izan ditazke (Maurixka ateratzen da).
(Atean agertzen da Hartza, trapuki bezti, lazgarri)...
Otsanda, [illegible] beldurrez joa, apur bat dago ixilik hari so) ... Nor zaitut zu, jauna ?.

HARTZA : Zer ? Ez duna ezagutzen hire anaia ?.

OTSANDA : Nere anaia ?.

HARTZA : Ba, Otsanda, Hartza naun !.

OTSANDA (harritua) : Hi, Hartza ! Hi hemen! (Bezarkatzen du).

HARTZA : Ba, Otsanda, preso lekutik ihes egin dinat.

OTSANDA : Ta ? Nere senarra ?.

HARTZA : Aa, Urko! Gaizo Urko!.

OTSANDA : (Asaldatua) Zer zaiok! Zerbeit gertatu nere senarra Urkori?

HARTZA : Ez, Otsanda, ez .. Urkok lagundu nain ihes egiten. Bera preso gelditu dun. Bainan ez luzarako.

OTSANDA : Nolaz hori ?.

HARTZA : (Fermuki) : Ez ote naun ni libro!. Ala zer uste dun? Itzalean lo egiteko dinatela preso-lekutik ihes egin?. Jakin zan nere besoak ez ditunala nereak, bainan preso diren nere lagun, bai eta ere gure Naparroaren zerbitzariak !.

OTSANDA : O! anaia!, Bahakik, zerbitzu hortako, elgarrekin uztartuak gaitukela! Zorigaitzez, gure familian, ez gaituk oro beretik ari.

HARTZA : Zer erran nahi dun?

OTSANDA : Hire arreba, nere ahizpa, Larrosa!....

HARTZA : Larrosa? Zer din Larrosak guk ez dugunik ?.

OTSANDA : Ez nikek nahi sobera asarre hadin ...

HARTZA : Mintza hadi! Zer din Larrosak ?

OTSANDA : Larrosa, amodio-urratsetan sartua duk.

HARTZA : Amodio urratsetan ? Norekin ?

OTSANDA : Ago, otoi, hire buruaren jabe.

HARTZA : Erran zan dena den.

OTSANDA : Charlemagné'n aintzindari Apfel izena duen batekin.

HARTZA : (Ikaragarriki samur) Ze-e-e-r ?. Gure erresumaz jabetu berri den aintzindari batekin ?. Gainerat Apfel'ekin ?.

OTSANDA : Ezagutzen duka hik, Apfel?

HARTZA : Nik ezagutzen dudan Apfel, usteldura hori? Hori dun Charlemagne'n armadan, azpiratu-jendez okupatzen dena. Horren manu-pean dun, gaur, Naparro guzia. Horrek ditin gure kabalak eta gure jatekoak ebasten, bere armadaren hazteko! Horrek gaitin gu, preso sartu, eta gurekin bertze zonbeit mila Napar, horren armadarentzat lanean artzeko.

OTSANDA : Ez hadila hola oihuka ar! (Xilintxa bat jotzen du)

HARTZA : Zer! Ez hola oihuka ar! Ba ahal dinat aski arrazoin hola artzeko.

MAURIXKA (agertuz) : Etxeko-anderea, deitu nauzu? .

OTSANDA : Ba, Maurixka, ekazu otoi jaterat, axtiko ogi eta gasnatik.

MAURIXKA : Ongi da, etxeko anderea (ateratzen da).

HARTZA : Nor dun neska hori ?.

OTSANDA : Ez duk neska ... Ezkondua duk ... Moro bat duk Zaragozatik etorria, hunat bizitzerat.

HARTZA : Mahometanoa,beraz !.

OTSANDA : Ba ... senarra, hura ere Morotarik, preso altxatua izan dik, hi bezala. Bizitzekoa galdezka, hunarat etorri duk eta hemen zaukiagu.

HARTZA : Bon, senarra gurekin eta gure alde duenaz geroz, dagola behingoan hemen. Bainan, gerla bururatuta, doala hemendik debruetarat!.

OTSANDA : Zergatik hori?.

HARTZA : Zergatik! Zeren eta sobera kanpotiar sartzen baitun gure Naparroan. Hola segituz, arrotzak bilakatuko ditun gure giderren jabe. Eta geldituko gaitun, kanpokoak etxean nausi eta etxekoak kanporat mutil joan behar.

OTSANDA : Guri duk kanpotiarreri atea neurriz idekitzea.

HARTZA : Xuxen mintzo haiz, bainan gertatzen dena bertzerik dun .. Gaurko egunean, ur gehiegi sartzen dun Naparroko arnoan.

MAURIXKA (sartuz zerbitzatzen du eta jalitzen da).

HARTZA : Hasteko, ni mesfidatzen naun, hola, arpegia kukuturik dabiltzan jendez.

OTSANDA : Horien legea duk, arpegia kukutzea, edozoin gizonen, salbu senarraren aintzinean.

HARTZA : (Ikusiz zer den mahainean) Ogi xuri eta gasna, nundik ditutzue etxe huntan ?.

OTSANDA : Gasna, gure ardien esnetik, eta ogia, gure landako ogi bihitik.

HARTZA : Nola ditaken, gure etxean ogi xuri eta gasna hoberenetik jaterat ukaitea, Naparro guzia dagolarik goseak hila, eskurra eta gaztainatik bizi ?.

OTSANDA : Apfel'en fagorez gaituk hola. Harek debekatu dik bere soldadoeri gure etxean deus hartzea.

HARTZA : (Asarre) Zer dun beraz gure etxea? Apfel'en goxategia?

OTSANDA : Apfel, batzuetan hunarat etortzen duk bere lagunekin jaterat. Mahain ona maite baitik, gure ontasunak erres-petatzen ditik, ez gure gatik, bainan bere gatik.

HARTZA : Ze-e-e-r ? Etxe huntan hire senarra eta hire anaia Apfel'en presuner, haren basakerien jasaile, eta Apfel hemen errege ?

OTSANDA : Hik bezenbat, nik ere, sofritzen diat gauzak hola izaiteaz. Ez ditiat begiko zikina baino gehiago ikusi nahi Apfel eta bere lagunak... Larrosa'rekin ditiztek beren har-eman guziak.

HARTZA : Bon! Ogi eta gasna hauiek ken-aitzin nere bixtatik!. Ahalgez ere, ez ditinat jastatu nahi !.. To, nun dun Larrosa ?.

OTSANDA : Mutikoa, ezti hadi!.

HARTZA : Ogi eta gasna hau ken-aitzin hemendik, eta deitzan hunarat Larrosa !.

OTSANDA : Zer behar duk Larrosa'ren ganik ?.

HARTZA : (Errabian) Ken-aitzin ogi ta gasna hauk, eta deitzan hunarat Larrosa !.

OTSANDA (Ogia eta gasna harturik, jalitzen da).

HARTZA : (Bakarrik) Hainbertze pairatu ondoan! ... Etxerat noiz berritz itzuliko, hainbertze amets buruan hazi ondoan.. Horra zer behar nuen kausitu!. Nere etxea, zerritei bilakatua! Oxala, han berean, betikotz gelditu banintz! Edo bederen, etxe hau errea arrapatu banu, bere izantate guziekin! Dorpea izanen zen, bainan ez, dudan desohorea baino dorpeago!.

Sartzen da OTSANDA, LARROSA ondotik ...

LARROSA : (Badoa anaiaren besarkatzerat) O! Hartza, hi hemen !, Hau berri on ezin sinetsia!.

HARTZA : (Bortizki pusatuz) Urrun nere ganik ! Ez dinat hire musurik nahi, urdanda, hi! Atxik han hire mutur zikindua Apfel zerriarentzat !.

LARROSA : Zer etorri haiz hunarat? Bazter sumintzerat? Hori duka hire mileskerra, nik hiri igorri kolientzat?

HARTZA : Hik, niri koliak igorri ? Zoin? Eta noiz?

LARROSA : Apfel'en bidez, nik aste guziz igorri koliak jateko eta arropez kargatuak, ez ote dituk ukan?

HARTZA : Nik ez dinat behin ere nehoren ganik kolirik ukan !

LARROSA : Gezurra!

HARTZA : Egia!.

LARROSA : Gezurra! Apfel'ek berak kondatu daitak : eskutik eskurat eman dauzkik koliak. Hire mileskerra eta berriak algi guziz ekarri daiztak.

HARTZA : Eta hik, ustel horren erranak sinetsi? Jakin zan, zerua lekuko, ez dutala nik nehoiz hire kolirik ukan! Igorri balin-baditun, Apfel'ek berak ditin gozatu!

LARROSA : Gezurra! Holakorik ez zukek!.

HARTZA : Gezurra diotala, ez dinat gehiago entzun nahi!. Hire onetan, ez zanela gehiago holako hitzik jali!. Apfel baino zikin-putzu uztelagorik ez dun mundu huntan! Eta hik horri ideki gure atea eta gure mahaina ! Horri eskaini hire bihotza eta hire gorputza ! Hi, presoner baten arreba eta bertze baten koinata !.

LARROSA : (Durduzatua) Ago ixilik ! Holakorik izan ditakela, ezin diat sinetsi.

HARTZA : Hire burua saldu izan bahu, Naparroaren zerbitzatzeko, paso ! Bainan Naparroa dun saldu, hire burua zerbitzatzeko !.

LARROSA : Ez nauk holako urratsetan sartu, nere buruaren atseginez, bainan zueri eta zuen bidez Naparroari laguntza egiteko !.

HARTZA : Aitzaki ongi pentsatua ! Napar-semeak, etsai-gerlariez hilak, preso-lekutan tormentatuak, eta Napar-alabak, etsai horiekin, beren etxetan musuka ! Ahulezia eta saldukeria elgarrekin uztartuak !.

LARROSA : Etsaietan ere baduk denetarik. Eta ez erran neri presonerak hain gaizki tratatuak ditukela !.

HARTZA : Ze-e-e-er! Baduna kopeta hola mintzatzeko !. So egizan nere eskuko erhi haukieri ! Azazkalak errotik kenduak ditinat. So egizan nere exuneri, nere beso muturreri !. Hor ditun, sokatik zintzilik atxiki nautelako seinaleak. Zangoak izan ditinat su-illetez erreak ! Hor dituh lekuko zauri idortuak ... Horiek guziak, hire Apfel lehun, aho xuriak manaturik ... Horra zer gizon den hire amorant xarmanta !.

LARROSA : Gezurra ! Gezurrez ari haiz Apfel'en beltzten, ni haren ganik berexi naiz ! .

HARTZA : Gezurra ! .. Hail ikusterat Urko, gure koinadoa. Berak irakutsiko daun bizkarra zanpaka zauritua ! Ukan dituen ukaldien gatik, beharri bat galdua din ! Urean burua sartuz, itordean atxikia diten, oraino berrikitan !.

OTSANDA : (Nigarrez asaldatua) O! Nere senarra ! O! Urko! Zer derasak ?.

HARTZA : (Estituz) Barka, Otsanda. Sobera mintzatu naun, bainan zorigaitzez egia dinat erran.

LARROSAK : (Bortizki) Gezurra ! Gezurra diok !.

HARTZA : (Errotua, puñala esku batean Larrosa iletarik hartuz) Gezurra ? Erran zan berritz hitz hori ! Zer dun ? Apfel sinetsi nahiago, anaia baino ! Holako hitz bat berritz eta garbitzen haut !.

OTSANDA (Bien arterat sartuz) : O anaia, ezti hadi otoi ! Aski odol baduk hol'hola hemen gaindi ixuririk. Erradatak egia, egia dena den. Nola duk Urko, nere senarra ? Erradatak egia ... egia ..(nigarrez ari da).

MAURIXKA : (asaldatua sartuz) Etxeko anderea, lau gizon zaldizko heldu dira ! Charlemagné'n soldadotarik !.

OTSANDA : (Ikaratua) He-é-e-e ! Hi, Hartza, gorde hadi ! Hail laster ! Hail selauru alde hortarat ! Laster ! Zu ere, Maurixka, gorde zaite usaiako lekuan ! .

(Hartza jalitzen da).

MAURIXKA : Ez zaitela asalda, etxeko-anderea, urrun dira oraino (jalitzen da).

OTSANDA : (Larrosari mintzo, lehiotik so eginez) : Lau zaldizko heldu ditun. Ez duna hik gorde nahi ?.

LARROSA : Berdin zaitan, gorde ala ez gorde ... Bizi ala hil ere bai ! Ez zakinat gehiago zer pentsa !.

OTSANDA / Jes ! Lau zaldizkotarik hiru, Charlemagne'n soldadotarik ditun. Laugarrenak iduri din zibil bat. Eta gainerat hemengo norbeit.

LARROSA : Uste duna Hartzak kondatu dituenak egiak direla ?.

OTSANDA : Gure anaia bortitza eta zakarra dun, bainan ez dun izan sekulan gezurtia. (Hasperen batekin) Gaixo nere senarra! (Lehiotik so) Zalditarik jausten ditun ...

LARROSA : Beraz, gu, arras aldrebes gabiltzan, Apfel eta bere lagunekin ?;

OTSANDA : Nik ez dinat behin ere begi onez ikusi Apfel hori. Erran dainat askotan, otso bat zela, ardi larruz beztitua (Lehiotik so) Zaldiak arboleri estikatu-ta, hunarat buruz heldu ditun.

LARROSA : Zer nahi dun hemen egin dezaten ? Apfel hor dinagu geritzatzaile.

OTSANDA : Oas ! Hiru soldadoekin heldu den zibil hori ezagutzen dinat ! Hemengoa dun : Satorbeltz ... Urde zikina!

LARROSA : Satorbeltz ?

OTSANDA : Ba, salatari zikin hori ! Herri guzia galtzen ari den ustel hori.

(Bet-betan, atea jo gabe, basaki sartzen dira Goton, Klein eta Rot).

GOTON : Satorbeltz, nor dira bi emazte hauk ?.

SATORBELTZ : Hemengo etxeko alabak, Goton jauna !.

GOTON : (Bi emazteari) Zuek eman hemen, paretaren kontra, altxa besoak, eta ez mugi. (Ikaratuak, obeditzen dute). Zuek, Rot eta Klein, mia etxe guzia, eta hunarat ekar arrapatuko ditutzuen jende guziak !. (Rot eta Klein jalitzen dira).

SATORBELTZ : Mia gero ohe azpiak ere !.

GOTON : (Bi emazteri) A ! beraz, zuek biak zirezte jauregi famatu huntako alabak ?.

SATORBELTZ : Ba, ba, hauk biak dira hemengo alabak.

GOTON : Eta etxe huntako gizonak jazarri dira gure Charlemagne handiari !.

SATORBELTZ : Ba, jazarri dira gure Charlemagne handiari !.

GOTON : Eta orai jakin nahi dutana hauxet da : nun da presundegitik ihes egin duen, zuen anaia ?

SATORBELTZ : Ba, nun da zuen anaia ?

OTSANDA : Guk, jauna, ez dakigu gure anaiaz deus ere.

GOTON : Gezurra! Zuen anaia hemen izan da, eta behar bada, oraino ere, hemen da !.

SATORBELTZ : Ba, gezurra !.

GOTON : Zueri da hautatzea ! Edo zuen anaia nun den erranen duzue, eta zuen bizia salbatuko, edo ixilik egonen zirezte eta puñal huntaz biak garbitzen zauztet.

SATORBELTZ : Puñalaz, ba !

OTSANDA : Guk, ez dakigu deus.

GOTON : Ba, badakizue ! (Otsandari buruz) Ez balin baduzu berehala aitortzen nun den zure anaia, puñal hau sartzen dautzut begitik !.

OTSANDA : Aa ! (alditxartzen da). (Klein eta Rot sartzen dira).

KLEIN : Jauna, ez dugu nehor arrapatu.

GOTON : Ontsa miatu ditutzue selaurua, ganberak, denak ? ....

SATORBELTZ : Ohe azpiak ?

KLEIN : Ba jauna, ba, denak !

GOTON : Bon, ontsa da. Zaku batzuetan bil-zkitzue arrapatuko ditutzuen jateko, arropa, gauza baliodun guziak. Karga-zkitzue denak zaldi gainetan.

KLEIN : Ongi da, jauna. (Rot eta Klein jalitzen dira)

GOTON : (Larrosari) Okupa zaite zure ahizpaz (Larrosak obeditzen du. Goton harat eta hunarat dabila, gogoetatua. Satorbeltz gauza bera egiten du.
Goton mintzo, boza lehunduz : Barkatu, andereak, izitu balinbazauztet. Ez naiz iduri luken bezain gaixtoa.

SATORBELTZ : Ez gira gaixtoak.

GOTON : Zuen maileko presunek eta holako pollitasunez jabe diren anderek bertze molderik dute merezi.

SATORBELTZ : Ba, ba, pollitak .....

GOTON (Satorbeltzi) : Zu, otoi, zaude ixilik !.

SATORBELTZ : Ba, Goton jauna, ba !.

GOTON : Horra andereak ! Ez uste izan zuen anaiari kalterik nahi diogula. Etorriak ginen zuen anaiari proposamendu bat egiterat. Har dezala gure eskualdea. Eman dadiela gurekin eskuz-esku. Eta Charlemagne'k berehala ezarriko du Naparroa guziaren buruzagi. Zer diozue hortaz ?

OTSANDA : Hori galda zozu berari.

GOTON : Ba, bainan hortako, behar ginuke nun den ! jakin. Konpreni-azue : zuen familia da, aitoren-semetarik. Badakizue Charlemagne'k aitoren semen eskutan dituela ezartzen bere erresumako gider guziak. Zuen anaia nun den tenore huntan, ez badezakerne erran, segur nunbeitik ukanen duzue laster haren berri. Nun den jakin bezain laster, zatozte nere ganat, joan gaiten haren aurkitzerat.

KLEIN : (hats-hantua sartuz) Goton jauna, Goton jauna !.

GOTON : Zer ? Zer da ?.

KLEIN : Gure zaldiak ! Gure lau zaldiak ! ....

GOTON : Zer ? Gure zaldiak ? ...

KLEIN : Ebatsi dituztela !.

GOTON : Ebatsi ? Nork ?

KLEIN : Pusken kargatzerat joan girelarik, zaldirik ez dugu aurkitu.

GOTON : Holakorik baditakea ?.

KLEIN : Ba, jauna, ba ! (Hiru gizonak jalitzen dira).

OTSANDA : Segur nun anaiak joan dituela zaldi horiek.

LARROSA : Xahu gaitun ! Hobe dinagu dena den aitortzea !.

OTSANDA : Baduna burutik ? Ez ahal haiz bilakatuko Satorbeltz kixkil horren iduriko !.

LARROSA : Ba, eta hiltzen bagaitizten ?.

OTSANDA : Eta gero zer ? Ez duna hil nahiago, anaia salatu baino?

LARROSA : Salatu edo ez salatu, hura gerizan dun. Orai, gure burua behar dinagu salbatu.

GOTON : (Izigarriko asarrean sartuz bere hiru lagunekin) Zerri ustel zikinak,zuek ! Nortzat hartzen gaitutzue ? Zer uste duzue ? Zuen azpikeriez ez girela ohartzen ? Bainan, azken aldikotz, gaitutzue enganatu ! Doala zuen odola ur-zikinen putzurat !.

KLEIN (Puñala jaliz) Jauna, behar dituguia xangratu ?.

GOTON : Ez, bainan esteka-zkitzue mahain zangoeri (Estekatzen ari direlarik) Holako ustelkeriak ez dituk suaz bertzerik garbitzen. Hartuko duzue lastoa selaurutik. Lasto matzota batzu ezarriko ditutzue etxeko barne guzitan. Hemen ere bai, hauk bien gorputzen gainean. Eta oro prest izanen direlarik, etorriko zaizte ni abisatzerat. Nik manua emaitean, orotan su emanen duzue. Erre bedi etxe hau, erre oso-osoa eta laster, barnean, dituen guziekin. Mugi, mugi, nik errana egin ! (jalitzen dira Klein eta Rot).

SATORBELTZ : (bi emazteri) A ba ! Zer uste zinuten ? Jauregiko alabak zineztela-ta, hori aski zela zuen salbatzeko ?.

GOTON : Satorbeltz ! Zer ari zira hemen ? Zoazi zu ere sua apailatzerat !.

SATORBELTZ : Ba, Goton jauna, ba, eta nihaurrek ekarriko dut andere hauk erretzeko lastoa. Eta nihaurrek su emanen diotet. Ba, ba, ba, (irri txar bat dariola jalitzen da)

GOTON : Nahi baduzue mintzatu, orai da tenora. Azken epe bat emaiten dautzuet.

OTSANDA : (Fierki) Zure basakeriez gure gorputzak bentzutu dituzu, bainan gure ispirituak sekulan ez ditutzu bentzutuko!.

GOTON : (Irri tzar batekin) Zuen gorputzeri bizia kenduz geroz, arras axola guti dut zuen ispirituez.

OTSANDA : Errex da emazte indar gaberi jazartzea. Gu hilen gaitutzu, bainan gure gizonak hor izanen dira gure odola mendekatzeko.

GOTON : Zuen gizonak ! Tenore huntan, zure senarra, zu bezela estekan daukagu. Ni naiz haren zaintzale nagusia. Eta ez bada zure anaia presondegirat itzultzen, zure senarrak zure bide bera hartuko du.

OTSANDA : Gezurra !

GOTON : Zuk nahi duzuna erranik ere, zure senarra han daukagu, ongi zigorturik estekatua. Eta nahi baduzu salbatu haren bizia et zurea ere, ordu da mintza zaiten !.

(Satorbeltz, lastoa besotan sartuz : Huna lastoa, Goton jauna !.

GOTON : Ezar-azu bi emazte horien ondoan.

SATORBELTZ (obedituz) Ba, andereak, eta nihaurrek dut lasto hau nere eskuz piztuko.

OTSANDA : Abre basa zirtzila !.

SATORBELTZ : Ba, sar-araziko dauzkitzut, ba, zure mesprezioak !

KLEIN (sartuz Rot-ekin) Jauna, oro prest dira. Su emaiten ahal duguia ?.

GOTON : Ba, bainan lehenik azken galde bat zuri (Otsandari mintzo) : azken aldikotz, nahi duzia mintzatu, edo bizirik erre ?.

OTSANDA : Gora Naparroa ! Gureak gure ! Gora gure lurra !.

GOTON (Larrosari) : Eta zuk, zer diozu ? Mintza ala erre ?.

LARROSA (ikaratua daldaretan) Ez, ez dut erre nahi ! Mintzatuko naiz, jauna, ba mintzatuko naiz.

KLEIN : Goton jauna, zaldizko multzo bat heldu da !.

GOTON : He-e-e-e ? Nor dira ?

KLEIN : Guretarik dira. Apfel bere gizonekin.

GOTON : Apfel ? Zertarat heldu da ?

KLEIN : Atean da !

APFEL (agertuz) : Agur deneri !

LARROSA : O ! Apfel ! Apfel jauna ! Salba gaitzatzu ! Erre nehi gaituzte !.

APFEL : Zer gertatzen da hemen ?.

LARROSA : Apfel jauna, guk ez dugu deus bobenik ! Erranen dauzkitzut denak. Den denak gertatu diren bezela.

GOTON : (Keinu egiten dio Apfel'i) (Biak buruz-buru ixilka mintzatzen dira).

LARROSA : (Ber-denboran) : Nere anaiak ihes egin du presondegitik eta hunarat etorri da. Guk ez dugu hortan hobenik. Eta hemendik ateratu-ta ebatsi omen ditu lau zaldi. Guk ez dugu hortan deus ikustekorik. Otoi, Apfel jauna, urrikal zaite gutaz !.

GOTON : (Manatuz) Bon, zu Satorbeltz, itzul hemengo lasto hau hartu lekurat !.

SATORBELTZ : (Harritua) He-e-e-e-e ? Lasto hau ?.

GOTON : Ba, eta obedi xehetasunik galdatu gabe.

SATORBELTZ :(Zakur joa iduri) Ba jauna, ba ba jauna !

GOTON : (Klein eta Rot'eri) Zuek biek sokatik libra emazte horiek ! (obeditzen dute) Zuen lana egin eta, jinen zirezte berehala kanporat enekin.

KLEIN : Errazu, Jauna, ... zera ... gasna bat badut hor, berex ezarria, gurekin joaiteko.

GOTON : Ez, hemengoak utz hemen !.

KLEIN : (Omore tzarrean) Bon, bon ....

GOTON : Eta goazen hemendik (jalitzen dira lauak).

LARROSA : O ! Milesker Apfel ! Salbatu baigaitutzu ! Zu ez bazine etorri, hilak izanen ginen, suaz erreak.

APFEL (Larrosa besarkatuz) : Ba tenore onean agertu naiz hemen, zu, nere bihotza.

OTSANDA (Besarkadaz desgustatua, ateratzen da, hitzik erran gabe).

APFEL : Hemendik iragaitean, ebatska bezala sartua nintzen, doidoia agurño bat egiterat.

LARROSA : O ! Ez dakit geiago nun naizen ... Burua xoratzen ari zaut ... Ez da ba nere falta, nere anaiak zerbait egin badu.

APFEL : Jar zaite, nere bihotza. Ez, ez zira zure anaiak eginez hobendun .... Ezti zaite ... Orai ez duzu irriskurik. Hemen nauzu, zu geriżatzeko.

LARROSA : O ! Zuen soldado horiek, zoin basak diren !.

APFEL : Orotan orotarik bada, nere bihotza ... Hiltzeko ofizioak ez ditu gizonak goxatzen.

LARROSA : Egia dea, preso sartuak, itsuski torturatzen ditutzuela?

APFEL : Ez holakorik sinets, nere bihotza ... Horiek guziak, mihi gaxtoen errankizunak besterik ez dira.

LARROSA : O ! Noiz bururatuko ote da gerla zikin hau ?.

APFEL : Gerla hau ez zen hasiko ere, Naparrek izan balute zuk duzun izpiritu argi eta xorrotxa, gu hemen onhartzeko eta laguntzeko ... Beha-zazu, orai ere, zure ahizpa hemendik ihesi joan da ... Ez daut milesker bat ere erran ... Bizkitartean bizia salbatu diot.

LARROSA : Ba, nere ahizpa hola da : hotza .. Bi-hitz, buruz-buru, erranen diożkat hortaz.

APFEL : Bon, ikusten dut lasaitu zirela ... Hola maite zaitut ... Ez nigartsu eta asaldatua, axtian bezala, bainan baketsu eta irrino batekin.

LARROSA : Ez da errex beti berdin izaitea.

APFEL : Bon, ez bainaiz sar-atera bat baizik egiterat etorria, banoa berehala. Bainan berritz itzuliko naiz eta, orduan, luzaz egonen gira buruz-buru.

LARROSA : O ! zoin laster ! ...

APFEL : Ez izan beldur, elgar berritz ikusiko dugu ... Agur beraz, nere bihotza ... (Elgar besarkatzen dute. Apfel jalitzen da).

OTSANDA : (sartuz, apur baten buruan) Ez dun goizegi joan baita ustel hori ! Ez haiz ahalge ere !.

LARROSA : Hik behar huken ahalge izan, ez baition milesker bat ere erran, bizia salbatu daunan gizonari.

OTSANDA : Ez ninan bizi salbatze beharrik ukahen, ez bazitenan nere bizia galtzeko irriskutan ezarri, horrek eta horren iduriboak, eta ez nere bizia bakarrik, bainan nere senarrarena, gure anaiarena eta bertze hoinbertze herritarrena. Ez badun sort-herritarren axolarik, izan zan bederen heien beldurra ! Zeren, egun hauk joanen baititun, eta gaurko eginkizunak, hor izanen ditun bihar, hire bizkar.

LARROSA : Bere sort-herria berdin maitatzen ahal dun, arrotz bati bere bihotza emanik ere.

OTSANDA : Apfel ez dun arrotz bat bakarrik, bainan etsai bat. Hemengoen odola ixurtzen ari den etsai abre bat.

LARROSA : Berdin zaitan, hik nahi dunena erranik ere ... Gauzak ez ditinagu begi berez ikusten, bainan nere ikus-bideak hirea balio din eta paso (jalitzen da).

IZEBA : (Apur baten buruan, sartuz) Agur, iloba maitea !.

OTSANDA : Agur, izeba.

IZEBA : (Besarkatuz, erdi-nigarrez) O iloba maitea, zer entzun dut zure anai eta senarrez ?.

OTSANDA : Zer entzun duzu, Izeba ?.

IZEBA : Kridaria ibili da herri guzian, jendea abisatuz Hartza zure anaiak presondegitik ihes egin duela ... Hemen gaindi ibilki dela. Haren gordetzaileak hilen dituztela .. .. Haren etxea erreko. Eta, hiru egun barne ez bada arrapatua, haren presoner lagunak garbituko dituztela.

OTSANDA : O ! Nere senarra ! ... Nere senarra da Hartzaren preso-lagunetarik bat (Jartzen da, hasperenka).

IZEBA : Horra, gizon buru-gabe horiek zertaratu gaituzten !. Hoinbertze aldiz erraiten nion zure senarrari : "Ez zaitela sar politika ixtorio horietan ! Baduzu bizitzekoa ausarki ! Ongi bizi zaite ! Zurea egin eta, ez sar bertzenetan ! ".

OTSANDA : (Asarre gorritua) Horren erraiterat etorria bazira hunarat, Izeba, egoiten ahal zinen etxean. Nere senarrak ibili dituen urratsak, nerekin ados eta nere nahitarat ibili ditu.

IZEBA : Zer, zure nahitarat ?. Etxea eta familia funditzen dituen gizonaren kontra, ez ote ditake deus erran ? Ongi bizi zinesten ... Geroa segurtatua ... Eta horra : orai zertan zirezten, zuen buru-berokeriaz !.

OTSANDA : Hobe zuretzat, zure buruaz kontent bazira. Zure jokabide guzia da, zurez-zure bizitzea ... Beti bil .. Ongi jan eta ongi edan ... Zu ongi izanez geroz, berdin zautzu leher egin dezaten bertze guziek : zure aurokoek, zure herritarrek, mundu guziak !.

IZEBA : Iloba gaixoa, ez zaitela hola oihuka ar !

OTSANDA : Hala da-ta ! Eta zuek zirezte gero "presuna onestak, kontseilu on emaileak, herriak etsenplutzat hartu behar dituenak ..." Eta gu gira "xoro batzu, neurri gabeko adimendu erre batzu ".

IZEBA : Ez dut holakorik erraiten.

OTSANDA (Beti oihuz) : Gudu hau galtzen badugu, hor daukazue jada zango bat altxatua, haren pean gu lehertzeko .. Eta irabasten badugu, hor daukazue eskua sakelan, prest gure aldeko bandera ttipi baten jalitzeko. Ustelak, zuek ... ez zauzte zuen ustelkeriak salbatuko !

IZEBA : Bon, bon, ez din balio hola asaldatzea !. Hola balinbadun, hola dun. Eta banioan etxerat.

OTSANDA : Zoazi nahi baduzu ! Ez zaitut nik hemendik igortzen ! Nahi duzularik itzuli, gure atea idekia aurkituren duzu .. .. Bainan ez zaitela hunarat etor holako xoro-kantuekin !

IZEBA ateratzen da.

OTSANDA (Bakarrik) Tripa eta moltsarentzat bakarrik bizi direnak, ez daitela ni-ganat etor, bizia nola ereman kontseilatzerat !.

LARROSA (sartuz paketa bat eskuan) : Otsanda, ni banioan hemendik.

OTSANDA (Harritua) : Hi ? Norat ?

LARROSA : Ez nun gehiago hemen bizitzen ahal ... Nahi dinat nunbeit gorde .. Ahantz nezatela denek .. Batzuk ala bertzek.

OTSANDA : Bainan, norat nahi dun joan ? Ez duna ikusten leku guziak zainduak direla ?

LARROSA : Hori, nere egitekoa dun ... Banioan.

OTSANDA : Neska, ekar-han bederen musu bat !.

LARROSA :(Musu bat emaiten dio hotzki ... Ateratzean nigarra eskapatzen zaio .. Otsandak ere nigar egiten du).

MAURIXKA : (sartuz, beldurti) Etxeko anderea !

OTSANDA, jarria begiak tapatuak nigarrez dago ...

MAURIXKA : Etxeko-anderea ! ....

OTSANDA : Zer da ? A ! Zu zirea, Maurixka ?

MAURIXKA : Ba, orai artio, sasi-batean egon naiz gorderik.

OTSANDA : Nigarrez ari nintzen ... Oro galdu ditut, oro, Maurixka : senarra, anaia, ahizpa, etxea ...

MAURIXKA : Ez zira bakarra, etxeko anderea. Nik ere oro berdin galdu ditut. Izan handi ala ttipi, gauza horiek berdin senditzen dira !.

OTSANDA : Arrazoin duzu, Maurixka ... Barka zaduzat, nere buruaz gehiegi bainaiz oroitzen eta inguruaz ez aski.

O I A L A

BIGARREN GERTALDIA

TAULA-GAINA : Presondegi barne bat.

(Oialak idekitzean, hiru presoner : ALI, ZIMELA eta URKO lurrean daude, pillari bati gate bederaz estekatuak. Ezagun du hainitz pairatu dutela.

ooooooooo

ZIMELA : A ! Hau egarria ! Hil gaitzatela lehen bai lehen, hil behar-eta ! Hola ez zukek iraun !.

URKO : Egin zak gogor ! Azken tantoa galtzen duenak dik partida galdua. Ez gaituk oraino azken tantoan.

ZIMELA : Hire koinado Hartza lagundu ginian hemendik ihes egiten. Gu libratzerat etortzekoa zuken ... Bainan ez zakiat ... ez zakiat ... Hau egarria ... (Orroaz) Edaterat ! Edaterat ! Ura ! Ura ! ...

URKO : Ez zakiat nere Koinado Hartzak hemendik aterako gaituen, bainan ni segur,eginen dituela hortako inahal guziak.

ZIMELA : Hura ihesi joaiten lagundu diagulakotz gaituk hiltzerat kondenatuak. Hauxet lukek latzgarri : bat salbatzeko hiru galtzea.

URKO : Zer nahi duk ? Baginakiken zer irriskatzen ginuen sasi-gerlari lotuz. Irriskatu diagu. Gure Naparroak hoinbertze merezi zian.

ZIMELA : Ba, Naparroak hoinbertze merezi zian. Ez ahatik hainitz Napar ustelek !. Guk ontsa pekatu-ta, hek baititek gozatuko gure odolaz erosi libertatea ....

URKO : Zer nahi duk ? Ez duk omeletarik egiten arroltzerik hautsi gabe.

ZIMELA : Zorigaitzez, gu gaituk arroltze hautsiak eta bertzek janen ditek, gure bizkar apailatu omeleta ... Hau egarria ! (oihuz) Edaterat, edaterat, ura, ura !

URKO : Halere, hi bederen ez haiz esposatua. Nagok, tenore huntan, nun ote dabilan nere Otsanda ....

ZIMELA : Hire Otsanda ! Ez hadila hartaz kexa. Engoitik hire ordaina egina dik.

URKO : Errak, to, leuntxago ibil hak gero, hire mihi hori !.

ZIMELA : Ba ... ez hukek lehena. Funtsean, behar bada arrazoin likek. Bizi bat diagu. Nagok, ez ote dugun astokeri bat egiten, gure bizia, hola, bertzentzat sakrifikatzea. Bereziki bertze horiek hoin axola guti dutelarik eskaintzen diotegun libertateaz.

URKO : Ez zakela pentsa, beren buruari bakarrik behatuz bizi diren direnek, zoriona gozatzen dutela. Biziari bere estimua emaiten ziotek bizitzeko arrazoinek. Bizitzeko arrazoinak mugatuago-ta, biziak, estimu gutiago dik.

ZIMELA : Ba, bazakiak hori ere... Hau egarria (oihuz) Edaterat, edaterat !... Ura ! Eta hik, Ali, ez duk fitsik errraiten? Hi ere ezkondua haiz. Nola dik izena hire emazteak ?

ALI : Maurixka.

ZIMELA : Maurixka... Izen pollita duk... Bahakika nun ditaken tenore huntan ?.

ALI : Fitsik ez zakiat.

ZIMELA : Ta, hi, morotarik izanki-ta, nolaz hiz hemen gurekin?

ALI : Ni, zonbeit urte hautan, Naparroan bizi nauk. Naparroari beraz zor zioiat zerbitzu.

ZIMELA : To! Oxala, Napar guziek, hik bezala pentsa balezate!

URKO : Kanpotik hunarat bizitzerat etorriak gertatzen dituk usu, Naparroari, hemengoak baino atxikiago." Ni ere Naparra naiz zuek bezenbat", aho-beteka ari zauzkigun zonbait baino, aise Naparrago dituk, Ali hau bezalako kanpotiar batzu. Bihotzez eta sakrifizioz baituk hau Naparroari estekatua, eta ez bakarrik elez.

ZIMELA : (oihuz) Edaterat! Edaterat! Ura! Ura!... Hola segituz, ez ditek ni hiltzeko lanik ukanen... Egarriak hilen bainaik...Galde dezagun edaterat orok betan.

(Hiruek oihuz betan) Edaterat. Edaterat! Ura! Ura!

KLEIN : (agertuz, azote bat eskuan) Ixilik hor gero!...Bertzenaz hanbat gaxtO !

(Hiruek) Edaterat! Edaterat! Ura! Ura!

KLEIN : (jozen ditu azotez) Ixil-araziko zauztet ba, nik. Horizuetura, ura behar balinbaduzue !

HIRUEK : Ai! Ai! Ai! Ustel zikina! Leher eginen ahal duk ! Mutur handi basa !

ZIMELA : (oihuz bakarrik) Edaterat! Edaterat! Ura! Ura!

KLEIN: (Buruko iletik hartu-ta, belaunak buruz jo-arazten diozka) Ixil-hadi! Ixilik egon-gogo duka ?.

ZIMELA: (bakarrik) Edaterat! Edaterat! Ura! Ura!.

KLEIN: (buruz belaunak jo-araziz) Ixilik hor !

HIRUEK: Edaterat ! Edaterat! Ura! Ura!

KLEIN : (hiruak zigortuz) Ixilik! Erresta Zikinak! Ixilik!

GOTON : (agertuz) Zer gertatzen da hemen ? Zer dira oihu hauk?

URKO : Goton jauna, ez dugu gauza handirik eskatzen, edateko ura baizik. Hoinbertzeko bat emanen ahal daukuzu !

GOTON : Laster hil behar ditugun gorputzen haztea, denbora galtzea da !

URKO : Hanitz denbora gehiago galduko duzu, gu ezin ixil-araziz, ezen-ez eta guri edaterat emanez.

GOTON : Bon ... Klein, hiru gizon hauk eremazkitzu bakotxa bere ganbera hetsirat. Han diren pitzarretako urez ase daitela.

KLEIN : Ongi da, jauna. (hiruen gateak laxaturik joaiten ditu) Aintzinat !

GOTON : (deituz) Rot !

ROT : (agertuz) Zer da Jauna ?

GOTON : Zer diaguk bazkaritako ?

ROT : Presoneren kolietako jatekoak, beti bezala.

GOTON : Baditek jateko onik ?

ROT : Ba, Koli batean badira ogi xuria eta gasna, bertze batean bada xingarra. Bertze batek badu erbi bat oso-osoa.

GOTON : Bon. Ontsa duk. Erbi-horrekin eta gaineratekoekin apaila zak bazkari on bat. Apfel gomitatu diat jaterat. Eta badakik Apfel-ek aho guria duela !...

ROT : Eginen dut ahal bezain ongi, jauna.

GOTON : Ba, segur nauk hortaz. Ta, nor dituk kanpoan so dagotzin presuna horiek ?

ROT : Bat da Satorbeltz. Bertzea Opil.

GOTON : Bon. HorieK usaiakoak ditiagu. Eta bertzerik?

ROT : Andere eder bat ere bada hor. Hau bere etxean ikusi ginuen.

Hartzaren arreba da eta hemen daukagun Urkoren Emaztea. Andere horrek, Apfel ikusi behar omen du.

GOTON : Bon... Dagola Apfel-en so... Sar-araz zak lehenik Opil.

ROT : Ontsa da, jauna.(jalitzen da)

GOTON : (apur bat dago bakarrik, ixtuz ari, omore onean)

OPIL : (sartuz) Agur, Goton jauna.

GOTON : Agur, agur, Opil. (irriz) Badakizu, Opil, zer gogoan nindagon ?

OPIL : (irriz) Zuk, segur ere, tripa-kontuko zerbeit zinuen gogoan.

GOTON : Ba eta ez... Tripak gaitu biziarazten ... Ta, nola zu baitzira gure tripen fornitzalea, pentsaketa nindagon ez dela nihun, hemen gaindi, zu baino ongarri-egile hoberik !

OPIL : (irriz) Ez, ongarri-egileak, zuek zirezte. Nik, ongarri gai fornitzen dut bakarrik...

GOTON : Bon, ta zer ongarri-gai bildu duzu egungotz gure tripentzat ?

OPIL : Lehenik, preso direnentzat, beti bezala, ezkurra ausarki eta garagarra.

GOTON : Ongi da. Biek, elgarregin egosi-ta, badute sustengu. Ahatik, egundik aintzinat, hiru aho gutiago izanen ditugu hazteko... Hiru baititugu hor egun urkatzekoak.

OPIL : Eta zuentzat ekarri dut... Pentsa zer ?

GOTON : Nork daki !...

OPIL : Adarrak baditu. Gerrenean apailatzen da maizenik, emeki errez, jusa on batez hola, gainetik, bustiz.

GOTON : Zikiroa ?

OPIL : Hura ta bera. Ta, adinez eta gizentasunez arras sasoinekoa. Ikusiko duzu nola izanen den, ahotik ezin utzia.

GOTON : A ! Zer Besta ! Zikiro-jatea ! Apfel ere hor izanen dugu.

OPIL : Hobe, hobe. Holako jan -aldiak merezi du Apfel-en ahoa.

GOTON : Errazu-ta, arnoa ? Ukaiten ahalko duguia arnoonik ?

OPIL : Ez zaitela kexa ! Badakit nun den xai famatu bat. Onez-onean ez badu xaieroak eman nahi, aski dautazu laguntako emaitea zure soldado horietarik zonbeit, eta

segur galdatua ukanen dugu !...

GOTON :Har-azkitzu nahi ditutzun laguntzale guziak. Segur holako lan baliosak hoinbertze merezi du.

OPIL : Bi laguntzaile aski dira holako malobra bat ongi bururatzeko.

GOTON :Nago, zuk, nola eta nundik hoinbertze jateko biltzen daukuzun. Hemengo jendea, itxuraz segurik, goseak hila dago. Eta Zuk, fornitzen daukuzu egun guziz, kasik nahi eta amesten dugun guzia.

OPIL : Hortakotz behar da jendea ezagutu eta bakotxari berea eman. Batzu biltzen ditutzu lausenguz, bertzeak beldurrez, edo berdin adixkidantzaz. Ni betidanik, jende mota guziekin ongi ateratzen naiz: hemengoekin, Moroekin eta zuekin ere.

GOTON: Begi onez ikusten zaituztea hemengo jendek, hola ari, gurekin hartu-emanetan ?

OPIL : Hemengo jendea ? Bo !... Hemengo jendea arras zozoa duzu ! Mihia ba, pixka bat ibiltzen dute, bainan ondotik fitsik ez ! Salbu, bixtan dena, zueri jazar diren buru-bero horiek. Horientzat, zuek baino ere etsaiago naiz.

GOTON: Eta zuk, zer pentsatzen duzu horietaz ?

OPIL : Erran dautzudan bezala : buru-bero batzu dira :" Naparroa behar omen dute libratu ". Zer eginen dute horiek, Charlemagnen armada ikaragarriaren kontra ? Hau edo hura izan, dadiela Naparroan manatzale, hemengo jendeari berdin zaio : berdin lana egin beharko baitu, bizia jalitzeko !

GOTON: Bon, ontsa da. Orai, zoazi laster zure adardun horren eremaiterat Rot gure kuzinariari, errakia tenoreko prest izan dadien.

OPIL: Banoa, jauna, banoa lasterka.

GOTON: Eta ateratzean, errozu otoi Satorbeltzi sar dadien.

OPIL : Erranen diot. (jalitzen da)

SATORBELTZ: (apurbaten buruan sartuz) Agur Goton jauna !

GOTON : Agur, agur, Satorbeltz ! A ! Zu, aste-sariaren billarat heldu ?

SATORBELTZ: Ba jauna, ba.

GOTON : Zure dirua prest-presta daukat... Huna (ematen dio) Eta, gure zaldi ebatsi hetaz, ikasi duzia zerbeit ?

SATORBELTZ: Ez oraino. Bainan erne-ernea nago. Segur naiz oihanean direla nunbeit. Bainan oihanerat ez ditake sar, bizia irriskatuz baizik.

GOTON : Ta Hartza ?

SATORBELTZ: Ez da hemen gaindi agertu. Haren etxea zaintzen dut gau eta egun... Eta badakizu segur, hemen duzula atean, Otsanda, Hartzaren arreba ?

GOTON : Ba, badakit.

SATORBELTZ: Eta, Hartzaren bertze arreba, Larrosa, ez da nihun ageri... Ez dakit nun ditaken.

GOTON : A !...

SATORBELTZ: Izeba mutxurdin aberats bat baitute hemendik hurbil, nago ez ote den horren etxean gordea. Behar bada Apfel jaunak badakike zerbait.

GOTON : Nolaz hori ?

SATORBELTZ: Badakit Apfel jauna usu joaiten dela jaterat Izeba horren ganat.

GOTON : A !... Beraz mahain ona duke.

SATORBELTZ: (irriz) Ba, ba, segur, ba.

GOTON : Bon, beraz aste huntan ere, lan berari jarraikiko zira. Ikusten baduzu herrian gizon arrotz bat, jin berehala gu abisatzerat... Zaint, molde berezi batez, Hartzaren etxea. Bertze edozoin berri ikasten baduzu, etor lehen bai lehen gu ganat.

SATORBELTZ: Ontsa da, Goton jauna.

GOTON : Bon, bertzaldi bat artio beraz, Satorbeltz.

SATORBELTZ: Ba, bertzaldi bat artio, Goton jauna. (jalitzen da).

APFEL : (apur baten buruan presatuki sartzen da), Agur, agur, Goton.

GOTON : Agur, Apfel jauna.

APFEL : A ! Malobra handitako ordua dugu. Atean hor da Otsanda. Nerekin nahi omen luke mintzatu eta bere senarra ikusi. Behar dugu padara huntaz baliatu, horien ganik zerbeit ardiesteko.

GOTON : Zer egin dezakegu ?.

APFEL : Ekar-araz zazu hunarat Urko, eta zaude nere onduan.

GOTON : Ongi da. (deituz) Klein ! Ekar-azu hunarat Urko !.

KLEIN : (kanpotik) : Ba jauna !.

APFEL jartzen da. GOTON xutik dago bere sahetsean.

KLEIN : (sartzen da Urkorekin) Belaunika hadi, erresta. Charlemagne'n ordaina duk hire aintzinean !.

URKO : Napar bat ez da belaunikatzen, Jainkoaren aintzinean baizik.

KLEIN : Ze-e-e-er ? (Jo nahi du azotez)

APFEL : Ez jo gizon hori ! Eskain-hozu jartzeko alki bat. (Klein'ek obeditzen du) ... (Urkori) Jar zaite.

URKO : Ez naiz buruz-buru jartzen adixkidekin baizik !.

APFEL : Nahi duzun bezala. (Klein'i mintzo). Zu, zaindari, joaiten ahal zira. (Klein jalitzen da). Urko jauna, ahantz zazu otoi, apur bat, gure arteko auzia. Egun heldu nitzautzu, ez etsai bezala, ez-eta aintzindari bezala, bainan Charlemagne inperadorearen mezulari bezala.

URKO : (bere baitan) Zer ziri ... behar ote daitak sakatu ?.

APFEL : Charlemagne inperadorea, atzo berean ikusi nuen. Badakizu Zaragozan ari dela guduka, Moroen kontra. Laster hiri hori gure eskutan izanen da. Gero, erran gabe doa, Charlemagne'k bere armadarekin leku hauk hustuko ditu.

URKO : (bere baitan) Ikus eta sinets.

APFEL : Bainan leku hauk ez lituzke utzi nahi indarrez ahulduak, Moroek laster bere bailezazkete.

URKO : (bere baitan) Aitzaki ederra, bera gure lurrez jabetzeko.

APFEL : Zu baitzira, Napar aintzindaritarik ospetsuena, eta gainerat, Charlemagne bezala girixtinoa, proposatua zautzuna da, Naparroaren zaintzeko armada bat muntatzea. Armada hortako soldadoak liezke Naparrak, eta heiekin nahasteka, Charlemagne'nak. Eta zu zintazke Naparren aintzindari lehena. Horra zer dautzun proposatzen Charlemagne inperadoreak.

URKO : Ikusten dut Charlemagne inperadoreak estimu handia duela neretzat.

APFEL : Bixtan da,(Barkatu mozten bazaitut), kargu hori onhartzen baduzu, zure gain izanen dela, beren lekugordetarik ateratzea eta Charlemagne'n manupean ezartzea, zure lagun Hartza eta bertzek, oihan barnetan muntatua duten sasi armada.

URKO : Charlemagne inperadoreari, jauna, ihardetsiko diozu nere partez Naparrek ez dugula den gutieneko xederik, Moroen uztea gure lurren jabetzerat ... Bainan, bera ere, soberakin dela gure lurretan .... Naparroa nahi dugula izan dadien bakarrik Naparrena ... Beraz galdatzen diot utz dezala bere armamentua gure eskutan, bainan bere soldadoak hemendik kenduz. Ongi armatuz geroz, Napar mutilek ez dute nehoren beharrik, Naparroko mugen

zaintzeko ... Arma gaitzala, eta doala lasai bere eremutarat ... Guk gureak zainduko ditugu.

APFEL : Ez, Charlemagne inperadoreak ez du sekulan holakorik onhartuko. Eskutan duen xoria utz bailezake aireko-aren menturan ...

URKO : Eta Naparroak ez du sekulan onhartuko airetan libro den xoria, kaiolan ezarria izan dadien.

APFEL : Orroit zaite, auzi hunen eztabadan, zure bizia jokatzen duzula ... Edo onhartzen duzu, eta biziko zira, edo .. .. ez duzu onhartzen, eta segur duzu hiltzea.

URKO : Nahiago dut izan hilik bizi dena, ezenetz bizirik hila dena.

APFEL : Bon ... Zu haurrek ikus ... Zure emaztea hor da atean. Apur baten buruan, hemen izanen duzu azken adioentzat, nun ez duzun Charlemagn'i jarraiki nahi.

URKO : Ez naiz nere xedetan kanbiakor.

APFEL : Hanbat gaxto beraz. (Gotoni mintzo) Goton, gizon hau joan-azu hemendik.

GOTON : Klein !.

KLEIN : (agertuz) Zer da jauna ?.

GOTON : Gizon hau joan-azu hemendik bere preso-gelarat.

KLEIN : Ontsa da jauna. (obeditzen du).

APFEL : Azken abisu bat, Urko .... Zure emazteari ez atera hitz erdi bat ere hemen jasan ditutzun pairamenez ... Aditzen duzu ? Ez eta hitz erdi bat ere ... Zuk, Goton, hurbildik zainduko ditutzu horien arteko sola-sak eta, hala beharrean, gerla-legez gaztigatuko ditutzu.

GOTON : Ontsa da jauna. (Klein ateratzen da Urko'rekin. Goton, irrino batekin : Zu, Apfel jauna, noiz izan zira Charlemagne'kin mintzatzen ?.

APFEL : A ! Goton ... Ez ote dakizu diplomazian gezurra aizu dela ? ... Bainan ez dut engañatu ... Nere plana zen, Napar sasi-armada xabalerat ekar-araztea, eta han, gure soldadoez suntsitzea ... Bainan allimal-leak, nere jikutria zilatu du.

GOTON : Ez naiz harritzen. Gizon guti ezagutzen dut hori bezain ernerik.

APFEL : Bon, behar dut entseiatu horren biltzerat bere emazte-aren medioz ... Sar-araz-azu, otoi, Otsanda, eta dagola

hemen nere beha ... Edari xorta baten billarat noa. (ateratzen da).

GOTON : (atetik kanporat mintzo) Aintzinat, anderea. (Otsanda sartzen da) Jar zaite.

OTSANDA : Milesker jauna. (ez da jartzen).

GOTON : Apur bat so egon beharko duzu ... Apfel jauna jinen da berehala. (Ateratzen da).

OTSANDA : (bakarrik) O ! biziaren latza ! Jina niz arinki bez-titurik ! Erran dautate : " Apfel'en biltzeko agert zaite emazte airos, errex, ergel ". Hortakotz naiz jina hola beztiturik leku hits huntarat ... Nere senarra salbatu nahiz ... Haren bizia Apfel'en eskutan da ... Gaur hiltzekoa dute .... Nere senarra salbatuko ote dut ?.... ala ez ?. Orai da gakoa ... Kezkan nago ... Jainko ona, lagunt nezazu !.

APFEL : (agertuz edari eta baso ttipiekin) A ! Otsanda ! Nere Otsanda ! Atsegin dut hunarat jin baitzira (Eskua tinkatzen dio doi bat lizunki ... Gero ere lizun agert dadiela ... Otsandak inahal guziak egiten ditu irrinoa ez galtzeko) ... Jar zaite ... Pena dut lehen aldikotz neri buruz heldu den, zu bezelako andere pollit bati, leku latz huntan ongi etorri egitea. Bainan esperantza dut, egun batez, ongi-etorri bera eginen dautzutala nere palazio handian.

OTSANDA : Jauna, nere senarrarentzat heldu nintzen. Krida izan omen da, Hartza ez bada, sarri berean, zuen zaldi-ekin hunarat itzultzen, hiru presoner hilen ditutzuela: nere senarra eta bertze bi.

APFEL : Ba, kridariak hori erran du (Edaria zerbitzatuz) Bainan geroztik zerbeit berri gertatu da.

OTSANDA : Zerbeit berri ?....

APFEL : Zure senarra salba dezakegu ... Ez bakarrik salba, bainan Naparroko lehen buruzagitarik bat bilaka ditake.. .. Ahatik, berak hala nahi badu.

OTSANDA : Nolaz hori ?.

APFEL : Charlemagne'k proposatzen dio bere armada Napar-armada-rekin uztartzea eta bera, Urko, Naparroko armadaren lehen aintzindari izaitea.

OTSANDA : Eta zer ihardetzi du nere senarrak ?...

APFEL : Duda mudetan dago ... Bainan iduritzen zaut, zuk duzun graziari esker, zure senarra bilduko duzula Charlemagne' kin elgar aditzerat. (Basoa altxatuz) Zure osagarriari !.

OTSANDA baso altxatzen du.

APFEL : Zure senarrak ez ahal du nahiko, zu bezelako andere xarmant bat, hoin gazterik alargunts geldi dadien. Zuri so nago xoratua .... Ez zintudan behin ere hain eder ikusi. Musu bat merezi duzu (Musu arin bat emaiten dio ... Otsanda begiak hetsirik hotz eta errabian dago).

OTSANDA : (xutiturik motzki mintzo) Nere senarra ikusten ahal duta ?.

APFEL : Erran gabe doa baietz ... Ahatik ez zaitela harri, preso egoiteak itxura pixka bat kanbiatu badio ... Eta, artetik erraiteko, zure ahizpa Larrosa zer bilakatu da ?.

OTSANDA : Nik ez dakit ... Etxetik joan zen eta ez da gehiago itzuli.

APFEL : (irrino batekin) Zuk ez dakizula deus ere ? Ta,ta,ta,ta!

OTSANDA : Ezetz jauna !.

APFEL : Ta, ta, ta, ta,(mazelako ttipi batez ferekatzen du)

OTSANDA : Nahi nuke nere senarra lehen bai lehen ikusi.

APFEL : Ba, ba, berehala (deituz) Goton !.

GOTON : (agertuz) Zer da jauna ?

APFEL : Ekar-azu otoi Urko hunarat.

GOTON : Ba jauna.

APFEL : Zure senarra ikusiko duzu beraz ... Behar ginuke bien artean, zuk eta nik, zure senarra salbatu ... Nik inahalak egiten ditut ... Bainan deus ez dezaket beraren kontra. Agian, zuk ardietsiko duzu, nik ezin ardiets dezaketena ... Uzten zaitut ... Agur .... Agur ... (eskuz eginez agurtze ttipi batzu jalitzen da).

URKO : (Agertzen da burua apal, ilhun, Klein'ek dakar, gatetik estekan).

GOTON : Bortz minuta ditutzue elgarrekin solas egiteko ! Egonen zirezte elgarren ganik bortz metretan... Eta, ez baduzue errespetatzen erreglamendua, Urko eremanen dugu berritz, berehala, presondegirat.
(Leku gainean gelditzen da).

OTSANDA : (nigarrez) Zu, Urko, zu, hola bilakatua !.

URKO ixilik dago.

OTSANDA : Zer ditutzu arpegiko uspel horiek ? Zer egin zauzte,jo?

URKO : (ahapetik mintzo) ... Ez.

OTSANDA : Eta zer ditutzu soineko horiek ? ... Nere koliak ukan ditutzuia bederen ?.

URKO : Ba.

OTSANDA : Eta, Apfel'ek erran baitaut zer proposatzen dautzun, onhartzen duzia elgar-aditzea Charlemagne'kin ?.

URKO : Ez dut onhartzen.

OTSANDA : Beraz hiltzea duzu ....

URKO : (moztuz) Ba .... Orroit zaite ezkontzean nola hitz-hartuak ginen ... Gu biak baino zerbeit gorago zerbitzatzeko ezkondu ginela.

OTSANDA : (nigarrez) Bai, orroitzen naiz, Urko. Latzgarri zait, bainan badakit zuk hartu bidea dela segur hoberena. Bide hori, nere egiten dut.

URKO : Milesker, Otsanda. Hola zaitut beti ezagutu .. Milesker, azken bururaino beti bera baitzaitut kausitzen.

GOTON : Mintzatzeko epea bururatua da !.

OTSANDA : O ! Goton jauna ! Utziko nuzia fagorez besarkada bat, azken besarkada bat emaiterat nere senarrari ?.

GOTON : Ez ... Hemengo erreglamenduak ez du holakorik onhartzen.

OTSANDA : Hau bihotz-gabekeria ! (nigarrez)

GOTON : Klein ! Gizon hau eremazu bere preso-gelarat !.

KLEIN obeditzen du ... Senar-emazteak elgarren ganik berexten dira ... luzeki elgar behatuz).

GOTON : Otsanda anderea, libro zira jalitzerat.

OTSANDA emeki abiatzen da ateari buruz.

APFEL : (Bet-betan sartuz irrino zuri batekin) Ta ? Otsanda ? Ardietsi duzia zerbeit zure senarraren ganik ?.

OTSANDA : (Goratik, mespresatuz, ikaragarriko behatze tzar bat egiten dio Apfel'i eta zalu zalua jalitzen da).

APFEL : (irri zuri batekin) A ! a! a! Otsanda ! ... Bai, horretxek ongi dakar bere izena : Otsanda. Egiazko otso-arrazatik baita. (Boza idortuz) Bon, bainan ez dezagun denborik gal ... Ez ditugunaz geroz biltzen ahal gure saretarat, doatzila urka-sokarat ! (Goton'i mintzo :) Goton, nahi dut hiru presonier horiek urkatuak izan daiten herriko plazan, hemendik apur baten buruan. Galda zozute ean apeza nahi duten ikusi. Gure jaun omoniera hemen da atean..

Eta, horien urkatzea, zure gain.

GOTON : Ongi da, Apfel jauna.

APFEL : (Kanpo alderat mintzo) Sartzen ahal zira, jaun omoniera. Ni banoa. Agur bieri. (jalitzen da eta omoniera sartzen da).

BIEK : Bai, agur Apfel jauna.

GOTON : Jaun omoniera, nik igorriko dauzkitzut bederazka presonerak hunarat. Aski diozute zuk erraitea zer gaztigu duten eta noizko.

PASTOR (omoniera) : Hauxe da maite ez dudan lana ! Bon beraz. Eginen dugu zuk erran bezala.

GOTON : Laster artio, jaun omoniera (jalitzen da).

PASTOR : Ba, laster artio, Goton jauna. (Bakarrik otoitzean bezala : Gure Jainko ona ! Zeruko Ama ! ....)

KLEIN : (Ekartzen du Ali eta estekatzen) Bon, uzten zauztet bi-biak.

PASTOR : Nor zaitut zu ?.

ALI : Izena dut Ali. Ez naiz girixtinoa, bainan Mahometanoa.

PASTOR : Ali, berri hits bat badut zuretzat ....

ALI : Ba, pentsatzen dut zer ... Noizko ?

PASTOR : Apur baten buruko.

ALI : Sokaz ala aizkoraz ?.

PASTOR : Sokaz.

ALI : Nahiagoko nuen aizkoraz (apur bat ixilik) Zer nahi duzu ! Intx Allah !... Hala beharra nehork ezin kanbia ! ... Nere zortea aintzinetik hola izkiriatua zen. Tenora! ... Eta tenora etorriz geroz, nehork fitsik ezin egin horren kontra !.

PASTOR : Baduzia familiarik ?.

ALI : Ba, emazte bat banuen ... Ez dakit ean bizi ala hila denetz.

PASTOR : Jainkoa ona da, Ali. Zure bihotza altxa zazu Jainkoari.

ALI : Ez naiz Jainkoaren beldur ... Ez dut nik nehori egin kalterik ... Ene emaztearekin bizi nintzen oneski. Moroa nintzela ta,Charlemagne'n soldado girixtinoek etxea erre zautaten eta preso altxatu ninduten. Horra nolaz naizen hemen.

PASTOR : Otoitz eginen dut zuretzat, Ali.

ALI : Milesker, jauna.

PASTOR : Nahiko zinukea norbeiti zure berrien emaitea ?.

ALI : Ba, nere emazteari, sekulan aurkitzen baduzu. Maurixka du izena.

PASTOR : Maurixka ! ... Hitz emaiten dautzut baietz ... Bon, zorigaitzez tenorea neurtua dugu. Elgarren ganik berexi behar dugu.

ALI : Milesker, jauna, zure solas onez.

KLEIN : (agertuz) Bururatua duzia zure lana ?.

PASTOR : Ba, Klein, ba !...

KLEIN : Bon, Ali, ator nerekin (biak jalitzen dira. Apur baten buruan Klein'ek ekartzen du Zimela eta estekatzen. Bera gordetzen da).

ZIMELA : (arroki mintzo) Zer ditugu ? Beleak jada hurbilduak ?.

PASTOR : Badakizu berria ?.

ZIMELA : Ez banaki ere, zu hemen ikustea aski dut, argitua izaiteko.

PASTOR : Girixtinoa zira ?.

ZIMELA : Ez ... Ez-eta izan nahi ere !.

PASTOR : Sinesten duzia Jainko bat badela ?.

ZIMELA : Nik diotana da, gain hartako su handi harek eta hango ximixt-ortziek badutela ibiltzale norbeit.

PASTOR : Sinesten duzia Jainkoa ona dela ?.

ZIMELA : Nik ez dakit Jainkoa ona den, bainan ona balinbada, segur naiz gure alde dela.

PASTOR : Laster ikusiko duzun Jainkoak maite zaitu : gizon guzien Aita da.

ZIMELA : Agian, zuek baino hobea da.

PASTOR : Zuretzat zer gira gu ?.

ZIMELA : Zuek ? Mandil batzu gure lurretan sartu zirenetenak, gure ontasunez jabetzeko eta mila abrekerieh obratzeko.

PASTOR : Baditake gauzak bertzela ikusiko ditutzula hil-eta gero.

ZIMELA : Bertzela edo bater'ez. Zure begiek ala nereek dute beharrago, gauzak bertzela ikustea ?.

PASTOR : Eginen dut zuretzat otoitz.

ZIMELA : Zer dabori, otoitza ?.

PASTOR : Jainkoari galdatuko diot urus izan zaiten, haren zeruan.

ZIMELA : Trufatzen zirea nitaz ? Nere urustasuna nahi baduzu, libra nezazu gate hautarik eta bakea eman zure otoitzekin !.

PASTOR : Baduzia, hil aintzin, fits erraitekorik ?.

ZIMELA : Ba, banuke asko, zuri eta zure lagun guzieri ere.

PASTOR : Zer zinuke erraiteko ?.

ZIMELA : Mihiz, gauza guti. Puñalaz gauza asko.

PASTOR : Mihizkoa bakarrik denaz geroz gu bien arteko auzia, hobe dugu nik uste, huntan gelditzea.

ZIMELA : Nahi duzun bezala.

PASTOR : (deituz) Klein !.

KLEIN : (agertuz irrino batekin) Konbertitu duzia ?.

ZIMELA : Hik bezala asto-beharriak banintu, ba, konbertituko nindikan. Bainan nik, gizon-beharriak ditiat !.

KLEIN azotez jotzen du eta joaiten).

PASTOR -(Apur bat bakarrik dago, gogoetatua.)

KLEIN : (Agertuz Urko-ekin) Huna jauna, hirugarrena. (Estekatzen du eta jalitzen da).

PASTOR : Urko jauna, badakit girixtinoa zirela ... Aita Sainduaren indulto batez baliatuz, zure burua salbo dezakegu. Ahatik, hortakotz, baitezpadako da, sentimendu onetan sar zaiten.

URKO : Zer deitzen ditutzu sentimendu onak ?.

PASTOR : Moro-Mahometanoek izigarrizko irriskuan emaiten dute girixtino arraza guzia ... Charlemagne'k, gerla hau muntatu du, Moroak zafratuz, girixtino erlisionea salbatzeko ... Hortan, Aita Sainduarekin eskuz-esku dabila.

URKO : Eta gero ?.

PASTOR : Zu ere girixtinoa zira, eta zure eginbidea da, gudukatzea Charlemagne'kin Moroen kontra, eta ez Moroekin Charlemagne'n kontra.

URKO : Gu, Charlemagne'k atakatu gaitu, eta ez Moroen armadak.

PASTOR : Ba, bainan zer eginen duzue, Charlemagne gabe, Moroek atakatzen bazauzte ?.

URKO : Moroen gaxtakeria da guretzat mentura. Zuena aldiz segura. Zuk diozuna da : "gaur hiltzen haut. Berdin bihar bertzek hilen haute ". Bietarik batean, nahiago dugu bihar hil Mahomatanoen esku beltzez, ezenez-eta gaur zuen eskuxuriez.

PASTOR : Bainan, ez duzia ikusten zertan den eta norat doan mundua ?. Mahometanoen sua orotarat hedatzen ari da. Girixtino bezala, denen salbatzeari jokatu behar dugu, eta ez bakarrik Naparro koxkorraren salbatzeari.

URKO : Charlemagne'n joka-bidea denen salbatzea ote da ?. Ez ote hobeki denen bere peko ezartzea ?. Urruna nola dezake salba, hurbila lehertzen duenak ?.

PASTOR : Gure arteko odol-ixurtzeak zuen gatik dira.

URKO : Gu atzo bakean bizi ginen. Gaur berdin bakean biziko ginen zuek ez bazinezte gure arterat sartu. Zoazte hemendik, eta bihar berritz bakea ukanen dugu. Zuen indarkeria eta orotaz jabetzeko duzuen gosea dira gure zoritxarraren iturriak. Besterik ez !.

PASTOR : Bainan Urko, ez zaitela lañotan bizi !. Mahometanoen ezpata zuen buruen gainean dago !.

URKO : Ba, eta zuen ezpata aldiz gure lepo gainean.

PASTOR : Beraz, zer duzu, Mahomet Jesus baino nahiago ?.

URKO : Jesusen hautua egina dut. Bainan nik ezagutzen dudan Jesus harek ezpatatzat zaukan zuzenbidea.

PASTOR : Eta guk, zer ote ?.

URKO : Zuek, nun duzue Naparroak bere gain bizitzeko daukan eskubidearen errespetua ?. Hor gauzkatzue gure libertatez desjabetuak. Ez ditazke gehiago konda zuen ohointzak, zanpaketak eta krimak ! Gaixo Naparroa !.

PASTOR : Eta beraz ni zer naiz ?.

URKO : Zuhaurrek dakizu. Egiazko Jesusen apeza bazira, behar duzu izan populu eta gizonek dauzkaten eskubiden zaintzale. Eskubide horiek ostikatuak direlarik, behar zinuke ozenki entzun-arazi zure protesta. Hori dea zure joka-bidea ?. Edo ez ote zira ostikarien alde ari den

alderdikari bat, eta heien ezpataren sustatzaile bat ? Hor ikus ! .....

PASTOR : Dena den, beraz, ez duzu Aita-Sainduaren indultoa merezitzeko urratsetan sartu nahi ?.

URKO : Ez dut galdatzen Aita Sainduaren ganik urrikalmendua, bainan zuzenbidea !.

PASTOR : Orduan, badakizu norako ziren, apur baten buruan Ali eta Zimela zure lagunekin ?.

URKO : Zuzen da, bide beretan ibiliek hel-buru bera izan dezaten.

KLEIN : (agertuz) Jaunak, tenore da : Urko behar dut hemendik ereman.

URKO : Hemen nauk hire gomendio. Ereman nezak (Klein'ek joaiten du).

PASTOR : Hor izanen nuzu, azken mementoan, zure ondoan.

URKO'k ez du deus ihardesten.

PASTOR : (Bakarrik gogoetatua) Hau auzia ! Eta Urko'k arrazoin balu ! Zer da nere egitekoa ? Ebanjelioa zabaltzea, berak barnez daukan indarraz, ala ezpataren indarraz ? Ttipiak lagunduz ... ala handiak balakatuz ? Jesus bere denborako manatzalek hil zuten, heieri mintzo baitzen, heien-peko zireneri bezain suharki edo suharkiago. Eta ni, nola mintzo naiz, gaur manatzale den Charlemagne inperadoreari ?. Harentzat gidari bat ote naiz, edo eskupeko xakur bat ?.
Ni zer ari naiz ? !!!.

O I A L A

ooooooooooo

ooo

HIRUGARREN GERTALDIA

TAULA-GAINA :

Kanpo bat, zonbeit arbolekin. Arbol horien pean da kolpatu eta presoneren biltokia. Onbor baten gainean jarria, URKO (kolpatua izanik burua oialez inguratua du). Sahets batean OTSANDA ari da PIZKOR gudariaren tratatzen. Hau handizki kolpatua da. MAURIXKA eta LARROSA, agert-gordeka ibilki dira, ura garraiatzen, suan berotzen, edaterat ematen eta hola.

URKO (deituz) : Ali !.

ALI : (agertuz) Zer da jauna ?.

URKO : Ekar-hak hunarat Apfel .... Behar ziogu egin bere jujamendua.

ALI : Ongi da, jauna. (Jalitzen da, eta berritz agertzen, Apfel estekatua dakarrela) Huna Apfel jauna.

URKO : (Fierki mintzo) Ereman gaitutzue hiru, sokatik zintzilik ezarri beharrez. Bainan kukuak kontra jo dautzue ... Hartza bere gizonekin ez zagon lo .... Hiru gizon ba, sokatik zintzilik ezarriak izan dira ... Bainan guk ditugu hek sokari lotu, eta ez hek gu.

APFEL : Ezin ukatua zuen sasi-gudariek hor erreusitu dutela ukaldi eder bat, bainan gerla ez da oraino bururatua ...

URKO : Goton, Rot eta Klein espantuka ari ziren zoinek mihi luzena jali-araziko zaukuten, Ali, Zimela eta nihaurri. Espantuak sartu zaizkotela, bereri lepoak kordaz inguratu diozkategularik !.

APFEL : Tanto batzu gal ditazke, partida galdu gabe. Atzo beren gorde-lekutik jautsi eginik, Hartzak eta bere lagunek libratu zaituzte, jada urko-sokaren azpian zineztelarik. Laster, Charlemagne'n soldadoek berdin jautsi eginen dute zuen gainerat, eta orduan kontuak ! .....

URKO : Zer kontu ? Ez dituzte Charlemagne'n soldadoek piztuko, urka-sokari lotu ditugun Goton eta bere bi lagunak. Eta ez pentsa zu libratzeko eperik utziko diotegula. Hemen zira jujatua izaiteko eta, apur baten buruan, toki hauk hustuko ditutzu, itzulpenik ez daukan lekurat joaiteko.

APFEL : Ez litake hori, Urko jauna, zure aldetik buruz jokatzea.

URKO : Zer ote litake ba neretzat, buruz jokatzea ?.

APFEL : Urko jauna, so egidazu .....

URKO : Eta gero zer ?.....

APFEL : Ote dakizu fortuna bat badaukazula nerekin ?.

URKO : Fortuna bat ? Zer fortuna ?.

APFEL : Ni hilez, deus ez .... Ni hiltzeaz ez dautzu den abantailik ttipiena ekarriko, Charlemagne'n mendakio ikaragarriena baizik ... Bainan, utz datazu bizia, eta ene bizian truk galda zazu nahi duzuna.

URKO : Zer zira ? Zure biziaren tratuan lotzen ?.

APFEL : Horixet bera !. Utz nezazu bizirik, eta ordaintzat galda zazu nahi duzuna : urre-meta bat ....

URKO : Bai ! ... Guri ebatsi-urrea !.

APFEL : Zuen presonieretatik ehun, ni bakarran truk.

URKO : Gure presoner bakotxak balio ditu zu bezelako ehun.

APFEL : Galda bertze zerbeit, nahi duzuna ...

URKO : Deus ez dugu, Apfel jauna, zuri galdatzeko ... Ezkaintzeko ba, ... edo hobeki, zuri emaiteko badugu zerbeit...

APFEL : Zer duzue neri emaiteko ?.

URKO : Soka-mutur bat lepotik; bertzerik ez !.

APFEL : Hortako ez daukazue esku-biderik : ni soldado bat naiz. Goragokoen manuak bete baizik ez dituen soldado bat.

URKO : Ez Apfel, ez zira zu soldado bat.

APFEL : Zer naiz bada ?.

URKO : Zu ? Poliz-nausi ustel bat. Emaztekari eta tripazale faltsu okaztagarri bat, ohoin higuin bat, kriminel ikaragarri bat ... Gure Naparro gaixo huntan, asko eta asko presuna, familia, etxalderen ondatzaile bat!.

APFEL : Urko jauna, zure fedeari dei egiten dut. Badakizu sail hortan iturri bereko girela. Ez ote litake gomeni, girixtino ez diren inguruko jendek, ikusiz ikas dezaten gure ganik, ez ote litake gomeni, girixtinoak elgarrez urrikal gaiten ?.

URKO : Eta zu, urrikaldu zirea gutaz ? Ez ote ziren pagano berak guri so, urkatzerat kondenatu gaitutzularik ?. Girixtino naizelakotz zaitut bietan kondenatuko : hobendunak gaztigua hartzen du, eta ez dut alderdikari izan nahi, desberdin jujatuz, berdin hobendun direnak, batzu girixtinoak direlakoan eta bertzeak paganoak !...

APFEL : Hil behar badut, onhar zazu bederen heriotzeari apailatzeko astia ukan dezadan, apeza ikusiz ! ...

URKO : Ez dautzut ezetzik emanen, holako galdearentzat.

ZIMELA : (asaldatua eta lorietan da) Haugi laster, Urko ! Zatozte, ahal duzuen guziak ! Gudua ari da bururatzen ! Hortxeberetik oro ikus ditazke ! Gure gudariek Roland inguratu dute ! Inguruko sasieri su eman diote ! Harrika eta arrokamilka Roland eta bere soldado ondarren garbitzen ari dira! Laster Ibañeta gain huntan entzunen dugu adarraren soinuaz berria zabaltzen : Gudua bururatua dela, gerla irabazia dugula. (irrintzin bat botatzen du. Urrundik ihardesten diote bertze askok).

URKO : Zatozte denak ! Goza ditzagun begiak holako ikusgailu espantagarriz. Gora Naparroa !

DENEK : Gora ! (Oro jalitzen dira, salbu Pizkor, Apfel eta Larrosa .. Ali, Apfel'en zaindaria, gorde-agerka dabila).

APFEL : (Boza nigarti batekin) Larrosa ! Edaterat otoi ! Ekarazu edaterat ! (Larrosa'k ura emaiten dio) Larrosa, ez zaitut aspaldian ikusi. Ez dakit norat joana zinen gordetzerat.

LARROSA : Erretreta bat egin dut. Nahi bainuen hobeki ikertu zertan nintzen eta zeri lot.

APFEL : Pentsatzen dut, Larrosa, neretzat duzun amodioa ez dela hoztu. Nik beti berdin maite zaitut. Badakizu zuretzat direla nere bizi, palazio eta ontasunak. Otoi, Larrosa, urrikal zaite nitaz !. Orroit zaite nik ere bizia salbatu dautzutala. Nehor ez da hemen : fite, fite, libra nezazu gate hautarik !.

LARROSA : (beldurti eta durdutzatua) Ez ... ez dezaket ... Ez dezaket !.

APFEL : Jainkoaren izenean galdatzen dautzut. Zure eskutan da orai, ni bizitzea ala hiltzea. Otoi, otoi, Larrosa ! ...

LARROSA (duda-mudetan bezala dago) Ez .. ez ! Heldu dira ! Heldu.. (Urruntzen da Apfel'en ganik. Ateraiak sartzen dira, salbu Zimela).

URKO : (Pizkor gudariari burua altxatzen dio) Errak, to ! Bitoria! Bitoria ! Laster entzunen diagu adarraren soinua ! (iduri luke Pizkor'ek konprenitu duela) Ali, errok jaun omoniererari sar dadien.

ALI : Ongi da, jauna.

URKO : (Pizkor gudariari :) Gaizoa ! ... Hoinbertze jasan ondoan ukanen ahal duk Bitoriaren gozatzeko zoriona !.

PASTOR : (agertuz) Urko jauna, deitu omen nauzu.

URKO : Ba, jaun omoniera; Apfel'ek nahi zaitu ikusi.

APFEL : Jaun omoniera, zure beharretan naiz.

PASTOR : (bihotzetik) A ! Apfel ! Orroit zaite girixtinoen armadako aintzindari bat zirela. Kuraiaren etsenplua emaiterat gomitatzen zaitut, ordu latz huntan.

APFEL : Jaun omoniera, ez naiz heriotzearen beldur. Zuhaurrek hainbertze aldiz predikatu daukuzu gure gerla gurutzada saindu bat dela. Mahometanoen kontra gerla eginez hiltzen direnek zerua segurtatua dutela.

MAURIXKA : (Hitz horiek aditzean eskandalaz joa) O ! .. O ! ..

PASTOR : (Laster mintzo) Erranak erran dira, Apfel !. Gaur, ez gira atzoko mailean. Ez zazula gehiago pentsa mundu huni, bainan zure arimari ... Apur baten buruan Jainkoaren aintzinerat agertuko baitzira.

APFEL : (bihotzetik mintzo) Jaun omoniera, mintza zaite apez bezala ... Errozu Urko jaunari bera bezala girixtinoak girela. Elgarri behar dugula barkatu. Neri barkatuz, deus ez duela galduko, bainan oro irabaziko .. Errozkitzu horiek guziak ! ...

PASTOR ixilik dago.

APFEL : (Nigarrez eta samur) Errozkitzu bada ! Mintza zaite ! Zergatik zaude hola ixilik ?.

PASTOR : Apfel jauna, otoitz egiteko tenorean gira.

ZIMELA:(Agertuz) Atera zaizte zonbeit, otoi, kolpatu batzu hor heldu baitira ! ... (Otsanda eta Maurixka jalitzen dira).

URKO : Zimela, Ali laguntzat har hak, eta gizon hau eremazue .. Despedi zazue betikotz !.

APFEL : (orroaz) Ez ! ez ! ez nezazuela hil ! Ez hil !.

ZIMELA : (Apfel pusatuz) Kanporat hemendik !.

APFEL (errabian, orroaz) : Denek leher eginen ahal duzue !. Charlemagne'k garbitukò zauzte, ba, oraino ! (Hiruak jalitzen dira).

PASTOR : (Urkori) Sokaz ala aizkoraz dute hiltzekoa ?.

URKO : Ez sokaz eta ez aizkoraz. Zaldi bati gibeletik estekatuta errestan ibiliz.

PASTOR : O ! Jainko ona ! (jalitzen da).

HARTZA : (Sartzen da, Otsanda eta Maurixkak laguntzen dutela. Zango bat airean lotua dauka).

URKO : O ! Hartza ! Zer haiz ? Kolpatua ?.

HARTZA : Zango huntan hartu diat lantza kaska bat. Bainan ez diat uste badutan gerokorik. (lorietan) Hau fitsik ez duk ! Gerla [illegible] irabazia diagu, Urko, irabazia ! Gure mutillak lehoina bezala jokatu dituk ! Azken etsaien garbitzen ari zirela utzi ditiat. Laster airea inharrosiko dik bitoriaren adar-soinuak !.

LARROSA : (Herabe ... hurbiltzen zaio Hartzari) Agur, anaia. (Musua eskaintzen dio).

HARTZA (asarre) : Ez dinat, nik, hire musu-gutiziarik ! Zer dira, Apfel'en oiloak gure landan ? Urko, zer da manera hau, to!.

LARROSA (nigarrez gordetzen da. Ez da gehiago agertuko).

URKO : Barka zok, Hartza. Apfel oraintxet igorria diaguk zaldi baten gibelean errestan. Larrosa izan duk ahula, bainan berritz bide zuzenerat itzulia duk ... Barka zok !.

HARTZA: Bon. Etxetik hasi behar dik gero, etsenplu ona emaiten !. Eta nere aldetik gaizki ibiliak diren familiakoentzat agertuko nauk bertzentzat baino idorrago. Hori manatzen dik gure sailak eta gure mailak.

ALI : (sartuz Satorbeltz dakar estekatua) Huna bertze presoner bat.

HARTZA : To ! Salatari zikina ! Hurbil-azue zirtzil hori nere ganat !. Izan dezadan atsegina nere puñal hau nihaurrek horri zintzurretik sartzeko.

SATORBELTZ (ikaratua) : Barka ! barka ! ni ez hil ! Ez naiz berritz hasiko !.

URKO (Hartzari) : Pausa hadi pixka bat, to; utzak horren jujatzea nere gain. (Bortizki Satorbeltzi) Satorbeltz ! Zonbat presuna salatu ditutzu etsaiari ?.

SATORBELTZ : Ez dakit ! .. Ez dakit ! Barka otoi, barka !.

URKO : Zonbat diru hunkitu duzu zure salatari ofizioa betetzeko ?

SATORBELTZ : Ez dakit !.. Ez dakit !... Ez naiz orroitzen !.

URKO : Nola nahi duzu hil, sokaz ala aizkoraz ?.

SATORBELTZ : Nik ez dut hil nahi ! Barka ! Barka ! Emaiten dut ene bizia zuen zerbitzuko ! Eginen ditut nahi ditutzuen lan guziak ! Zuen esklabo emaiten naiz, bainan ez nezazuela hil !.

URKO : Ez gira gure etxetan xakur gibel milikari beharretan. Aski zikindu ditutzu leku hauk. Ordu da huts ditzatzun. Apur baten buruan lepoa aizkoraz moztua izanen duzu !.

SATORBELTZ : Hori ez ! hori ez ! (Belaunikatzen da) Barka ! Barka ! ....

URKO : Apeza ikusi nahi duzu ?.

SATORBELTZ : Ba, ba, ... barka ! barka !.

ZIMELA (agertuz) : Sartu direla Apfel'en espantu eta larderiak, zaldiari estekatu diagularik ! Han utzi diagu, oihanean, hiru pusketan ! Arrano eta belek jan dezatela ! .

URKO : Bon. Eta orai, eremazue bertze hau !. Aizkoraz jo baino lehen, apezarekin utz-azue apur bat. Hura ikusi behar omen dik.

ZIMELA : Haugi hunat, hi, apo tzar madarikatua! Ez haute hire kurrixkek salbatuko ! (Erdi errestan deramakate kanporat "ai !, ai!, barka ! " dariola. Ateratzen dira Ali, Zimela, eta Satorbeltz).

URKO : (Populuari mintzo Satorbeltz irakutsiz) Doala hemendik ! Doala betikotz ! Gure populuak sobera sofritu du, etsaiari, diruan truk, beren arima saldu duten salatari horien gatik ! Judas'en ofizioko jende hits horiek gure populuari egin kaltea nork dezake neurt ?. Suntsi dadiela horien arraza behin betikotz ! .... Onez-onean ez bada, beldurrez bederen, gure etxe eta herri-saltzale diren salatari pozoin horiek, barna har dezatela nolakoa izaiten den gaizki ibiliaren biharamuna ! .

OTSANDA : O ! Noiz ote gure etxerat itzultzen ahalko gira oro, han lehen bezala bakean bizitzeko? ....

URKO : Ez, ez da gure bizia aintzinean bezala izanen. Hainitz familia doluz joak, jateko eskasia, lurren ibiltzeko kabalik ez, horra jasan beharko ditugun gerlaren ondorioak.

OTSANDA : A ! Bederen herrarik ez balitz gelditzen jenden artean !.

URKO : Izanen da nori barka eta zeri lot, gure etxetik haste. Gerla hunek sarraski handiak utziko ditu gure ontasunetan. Handiagoak gure bihotzetan ! ....

OTSANDA : (Pizkor irakutsiz) Hau nekez da, ba, biziko. Berritz ere ezagutza galdua du.

HARTZA : A ! Neri ere ari zait zangoko mina atzartzen. Otsanda, lagunt nezan, no, hortxetaraino.

OTSANDA : Hobe duk hemen egon.

HARTZA : Ez ... Hortik ikusiko ditinat guduaren azken zalapartak, eta hola nere minaz gutiago orroituko naun.

OTSANDA, jalitzen, laguntzen du.

ZIMELA (sartuz) Aizkora kinkako bat eman zioiagu Satorbeltzi. Zerriak bezelako kurrinkak atera ditik, burua pikaderari estekatzean.

URKO : Nor zer baita, araberako heriotzea.

ZIMELA : Apur baten buruan, bertze zerri bat ere, hemen ukanen duk jujatzeko. Aizkora pikadera sarturik, prest utzia diat harentzat.

URKO : Nortaz mintzo haiz ?.

ZIMELA : Opil, tripa fornitzale hortaz.

URKO : Opil, preso ezarriko diat, bainan ez hiltzerat kondenatuko.

ZIMELA : (harritua) Ze-e-e-e-er ? Baduka burutik ?

URKO : (Fermuki) Nere barneko errabiaz, gaurko Naparren erdiak hiltzerat kondena nezazkek : edo, etsaiari beren arima salduz Napar-odola ixuri dutelakotz. Edo, bihotzkeriz, beldurraz ala miseriaz, ahul agertu direlakotz etsai basari buruz. Bainan biharko egunari pentsatzen diat. Zer ari gaituk, Napar-odola putzuka ixuriz ?. Naparroa diagu odolez hustuko eta Naparren artean ditiagu ikaragarriko herrak muntatuko. Holakorik ez !.

ZIMELA : Eta zer bada ?. Naparroa libratzailek ixuri odola, hek jasan pairamenak, utziko dituka gaztigurik gabe ?. Uste duka libratzailek holakorik onhartuko dutela ?. Badakika zer diokan ?.

URKO : Gaizki eginak, gaztigua merezi dik. Bainan gaztiguak behar dik izan gaizki eginaren neurrikoa. Zuzen duk bertzeri bizia gal-arazi duenak, berea gal dezan. Zuzen duk, gerlaz baliatuz ontasunez aberastu denak, ontasun hek gal [illegible] ditzan. Zuzen duk, etsaiarentzat bihotzez ahul agertu denak, bil dezan bere baitan, gaizki ibiliaren ahalge eta desgrazia.

(Hemendik aintzinat, solastatzea doala saminduz).

ZIMELA : Eta Opil, zer xori-motatik dela uste duk ?.

URKO : Opil duk gizon ontasun-gose bat. Naparroaren kenka hitzaz baliatuz, bere burua dik zerbitzatu, bainan ez dik

Naparroa saldu. Doala preso eta, ondoko egunetan, ontasun galtzez paga dezala, ontasun gaizki-biltzez merezitu duen gaztigua.

ZIMELA : Ni ez nauk hortan hirekin ados. Opil beraren ahotik entzun izan ditiat hitz hauk : "gerlatik bizirik ateratzen denak, harek dik gerla irabazia". Beraz, bizia usten badiok, berritz ere gerlan-hilez trufatzeko padara emaiten diok.

URKO : Orroit-adi Opil'en semea gurekin dela eta gure armadako aintzindari bat. Ukanen duka aski bertute bihar erraiteko Opil'en semeari, haren aita hire eskuz garbitu dukala ?. Eta erraiten badiok, uste duka harek egitate hori barkatuko daukala ?.

ZIMELA : Hortaratzen bahaiz, herri-saltzale guziek aurkituko ditek zerbeit arrazoin edo estakuru beren burua salbatzeko. Batek, semea izanen dik libratzailetan. Bertzeak gure kontra zaukan arma, azken mementoan itzuliko dik gure alde . Hirugarrenak partida jokatua izanen dik, arroltzeak ezarriz bi eskualdetako kafitan.

URKO : Ba, diokan bezala, hainitz kasu desberdin izan zukek. Gaurko egunean, Naparroaren geroari behatuz, hobereña diagu berehala eta finki: hobendun larrienen jotzea. Geroxago eta hotzean orraztatuko ditiagu bederazka gai gainerateko kalte-egileak.

ZIMELA : Populuak ez dik sekulan onhartuko bizirik utz ditzagun Opil bezalako biligarro batzu.

URKO : POPULUAK, guk deliberatu bezala hartuko ditik gauzak. Guri duk populuaren zerbitzatzea eta ez haren basatzea.

ZIMELA : Hik erran guzien gatik, ezin jasanezko ahulezi bat zaitak, Opil bizirik uztea. Berehala horren garbitzerat nioak.

URKO : Hihaurek ikus. Opil hire eskutan duk... Bainan jakin zak, ondoko egunetan, ez naukela hire xuritzen ariko, holako krima bat egiten baduk.

ZIMELA : Nahi dukan bezala. Bainan estimu ttipia merezi dik, bere gerlako laguna xuritzeko on ez den gizonak, etsaiarekin zikindu-etxeko- arreba xuritu ondoan (ateratzen da asarre).

OTSANDA : O ! Urko, pisu eta latzgarri zauzkit gure arteko kalapita hauk. Hoin luzaz denek berdin desiratu dugun alegrantziazko eguna, hor dugularik gure atean!.

URKO : Ni ez naiteke ba bertzela joka ! Zuzentasuna behar dela, nahi dut. Bainan, mundu huntan ez da zuzentasun osorik. Eta zuzentasun gehiegi-nahia da, usu, makurbide askoren iturria.

IZEBA : (Sartuz otarre bat besoan) O ! Iloba maiteak ! Azkenean atzemaiten zauztet. Orenak badira hor ibilki naizela zuen ondotik. Otarre hau oialez betea dut, kolpatuak ditazken gure gaixo soldadoen artatzeko.

URKO : (Asarre) Zuk, Izeba, baduzu kopeta hunarat agertzeko eta hola mintzatzeko !

IZEBA : Zer ? Ez ahal diat gaizkirik egiten !

URKO : Zure bizia nahi baduzu salbatu, leku hauk lehen bai lehen huts-azkitzu !... Lehen bai lehen !

IZEBA : Ez ahal ditut laguntzen ahal-gure Napar gaixo soldadoak ?

URKO : Aspaldi du laguntzen ahal zinituela. Orai baino behar handiagotan zirelarik, zure goxokeriak ez ziren heientzat bainan heien etsaientzat. Zoazi hemendik ! Ondoko egunetan, jinen zauzkitzu etxerat kondu galdatzaleak... Bainan egungoan, eta, nahi baduzu zure larrua salbatu, zoazi hemendik eta zaude gorderik.

IZEBA : Bon, Bon, Halere pentsatzen diat, otarre huntako pusken beharretan zireztela.

URKO : Otarre hori huts-azu hemen nahi baduzu. Bainan zu, gorde zaite begien bixtatik.

IZEBA : Bon, bon (jalitzen da).

OTSANDA : Bainan, arras xoroa behar du izan gure Izebak, kenka huntan hemen agertzeko.

URKO : Xoroa eta kopetatsua ! Ez dakit zerk ekarri duen hunarat beldurrak ala maltzurkeriak ! Bainan libratzailek sobera ... t begitan dute eta horren, salbatzeak emanen daukulan !

OTSANDA : BITXI DA JENDEA zoin kanbiakorra izan ditaken.

URKO : Ba, pairamenetan ginelarik, nehor gutik nahi gintuen lagundu. Orai, partida irabazi dugula-ta, laguntzaileak nun nahi sortzen dira, larrazkenean onjoak bezala.

OTSANDA : Betikoa da. Gutik dute arbola landatu eta lantu nahi, gero haren fruituen jateko. Bertzen izerdiz etorri fruitua zaiote laket. (Norbeit ikusten du) Errazu, Urko ! Apeza hor heldu da.

PASTOR : (agertuz, minberaki mintzo) Urko jauna, ez dakit badakizun, bainan zure soldadoak, abrekeri eta krima itsusienen obratzen ari dira.

URKO : Zer derasazu ?

PASTOR : Bai, zure soldadoak, puñal ukaldika, gure presoner guzien hiltzen ari dira. Eta ez dira bakarrik. Gureeri jazartzen, bainan hemen bereko emazte eta nexkatx gaixo batzu, lagundu gaituztelakoan, han dabilzkate basaki,

biluzirik eta ileak mozturik. Horra zertaratuak diren zure gizon (gaxtoki) "libratzaile zintzoak !".

URKO : (fermuki) Solas molde hau, jaun omoniera, zure ahoan gûsago litake, bertze ordu batzuz, zure aintzindarieri mintzatu izan bazine, orai neri mintzo ziren bezala. Han zinen lekuko, zure soldado "Jainkoaren aldeko gudariek", gu, pairamenez lehertzen eta hiltzen gintuztelarik. Egin duzia orduan protestarik ?, Aitor-azu ezetz. Protestaren orde, zure predikutan, bai, zure predikutan - ez uka, jaun apeza - gu zafratzea eta hiltzea, Jainkoaren ogi-landatik irakaren kasatzea zela, duzu erran. Ez duzu beraz, zuk, gaur, mintzo ziren bezala mintzatzeko eskubiderik !.

PASTOR : Hola mintzo naiz, Urko jauna, atzoko ú huts berak, ez daiten gaur ere, berritz gerta.

URKO : Ez ditut begiak hetsiko, zuek bezala, basakeri horien aintzinean. Eta ez naiz geldirik egonen. Nere bizia irrisku, berehala banoa inahal guzien egiterat hitskeri horien ezeztatzeko. Esperantza dut, jaun omoniera, lan hartako, nere sahetsean aurkituko zaitudala ... Abiatzen ahal zira. Heldu naiz ondotik (Pastor jalitzen da).

OTSANDA : (asaldatua) O ! Urko, ikaran nago Ez ahal zautzu zerbeit gertatuko, gure ametsen helburua gozatzeko padara etorri zaukun orduan !. Heldu naiz zurekin.

URKO : Ez, Otsanda, zure eginbidea da hemen egoitea. Nerea, harat joaitea. Banoa berehala, zenbeit zaldizko harturik, zer gertatzen den ikusterat. (Ateratzen da. Otsandak segitzen du ondotik ... Agerian gelditzen dira bakarrik Pizkor eta Maurixka).

MAURIXKA : O ! Nere senarra nun ote da ?. Allah ! Urrikal zaite gutaz ! Allah ! Allah! Lagun gaitzatzu !.

ALI : (sartuz) Hor zirea, Maurixka ?. Nausiarekin batean banoa zaldiz ni ere.

MAURIXKA : O ! Ali, zer behar dugu bilakatu ?.

ALI : Naparroa zerbitzatu dugu. Naparroak onhartuko ahal gaitu bere haur bezala !... Ez bagaitu onhartzen, hemendik kasatzen bagaitu, berritz itzuliko gira gureen arterat.

MAURIXKA : Beldur naiz, Ali, zerbeit gerta dakizun.

ALI : Intx Allah ! ... Maurixka ! - (jalitzen da).

MAURIXKA : Ba, Intx Allah ! (nigarrez gelditzen da).

OTSANDA : (sartuz) Berritz ere, Maurixka, zu eta ni, gertatzen gira biak elgarrekin, beti ikara beraz josiak.

MAURIXKA : Allah'k gerta gaitzala elgarrekin eta bakean, gerla hau bururatu ondoan. (ateratzen da).

OTSANDA ari da PIZKOR'en artatzen.

ZIMELA : (lorietan bere burua doi-doia agertuz) Zato laster, zato, Otsanda, trapu xuria goiti altxatu dute ! Orai joko dute adar-soinua ! Gerla irabazi dugu ! (Entzuten dira adar-soinu eta irrintzinak)

OTSANDA (lorietan bere kolpatuari mintzo) Bitoria ! Bitoria ! Horra adar-soinua ! (Pizkor'ek konprenitu du. Bere loria erakusten du jestuz)

(OTSANDA, xutik, populuari kartsuki mintzo) : Bitoria ! Milesker Jainkoa ! Orai berdin zaizkit jasan pairamenak ! Nere Naparroa libro da ! BITORIA !!! .....

°°°°°°°°°°°°°°

O I A L A
==========

°°°°°°
°°

Pierre LARZABAL.

1968'aren Urrian.

ROXALI

B O R T Z G E R T A L D I T A K O

A N T Z E R K I A

==========

P. LARZABAL'ek egina.

JOKALARIAK :

1.- ROXALI, 2I urte, pollit. (R)

2.- LILI, 20 urte, eder. (L)

3.- AMA, 45 urte, edozoin, (A)

4.- SERORA SUPERIORA, 60 urte, idor eta zintzo. (S)

5.- MIXEL, 25 urte, eder? (M)

6.- KANKAIL, 50 urte, handi (K)

7.- POLLIT, 25 urte, pollit. (P)

8.- OMONIERA, 40 urte, edozoin. (O)

9.- JAKINPUTZ, 45 urte, xut, idor, bitzia jantziz eta moldez. (J)

10.- BITOR, 40 urte, edozoin.

11.- CLOCLO, hiritako "clochard" bat, sasi bizar batekin. (C).

LEHEN GERTALDIA.-

Joka-lekua - Etxe-barne bat.

ROXALI - AMA - MIXEL

ROXALI : (zulubi baten gainean, ari da murru garbitzen. Erdi murmurikatuz, kantatzen du :" Goizean goiz jeikirik ". Leihotik so eginez.)
" Te, Mixel tindatzailea ! Hori ere zulubi gainean... (Oihuz)
" Mixel, huhu !.. (Iru aldiz, oihu bera botatzen dio, aldi bakotx bere burua gordez... Gero, lurrean etzanik ematen da, zulubitik erori balitz bezala eta intzirinka lotzen.)

AMA : (Agertuz) Zer duzu haurra ! Zer gertatzen zautzu !

R. : Ai ai ai, ama !. Ai ai ai !

A.: Gaixo haurra, bainan, nun hartu duzu min ?

R.: Ez dakit, ez dakit !. Denean dut min ! Ai ai ai, ama !

A.: (Gibel mazela torratuz) Denean ?.. Bainan, xuxen, nun duzu min.?. Hemen min duzia ?

R.: Bai, hor ere min dut.. Ai ai ai !

A.: Hor ere ? Eta bertzerik, nun ? Buruan hartu duzia kolperik ?

R.: Ba, hor ere ba !.. Ai ai ai !

A.: Ez da ba nehun odolik ageri !

R.: Ez... Buru barnean hartu dut kolpea.

A.: Buru barnean ?.. Ale, xuti zaite ! Ekazu eskua !

R.: Ez ama !.. Eeez!.. Ai ai ai !

A.: Ez zintazke ba hola egon ! Ale, lot zaite neri !

R.: Ama, ni ez hunki ! Beharbada bizkar ezurra autsia dut... Ba ba, segur autsia dut. (Azkarki nigarrez) Ba, hala dut ! Ama, hilen naiz !

A.: Ez dakit ba nik zer egin ! Fotoila urbilduko dautzut ! Ahal bezain polliki, hortan jarriko zaitut !

R.: Ez, ama, otoi ez ! Aa, eskualde bat dena [illegible] ari zaut ! Hilen naiz, ama !.. Horra.. hiltzen ari naiz !

A.: Bakea emazu, haurra ! Eta zato hunat, fotoila gainerat !

R.: Ez ama, ez ! Zuk ez duzu aski indarrik ni hortan ezartzeko !

A.: Hola ez zintuzket ba utzi ! A.:

R.: Ekazu hunat gizon bat, ni altxatzeko ! Gizon azkar bat !

A.: Norat nai duzu gizonketarat joaitea, tenore huntan ? R.:

R.: Hor duzu Mixel tindatzailea.

A.: Mixel tindatzailea ? Nun ? A.:

R.: Hor ari kanpoan, etxe tindatzen ! M.:

A.: Bon bon ! Galdetuko diot hel dadien. (Ateratzen da) A.:

R.: (Bakarrik. Xuxitzen da bere burua apaintzeko eta berritz, lehen bezala etzintzen, erakusterat emanez nai duela Mixel, bere etzinmoldeaz tentatu.) R.

A.: (Sartuz Mixelekin). Horra, Mixel gaixoa, ez dakit zer gertatu zaion Roxaliri. Zulubi gainean ari zen lanean. Erori da eta ez omen ditake bakarrik altxa. Laguntzale azkar bat behar omen du hotako. M. R.

R.: Ai ai !.. Min dut !.. Min dut denetan. M.

A.: Bien artean ezarriko dugu fotoilaren gainean. (Ama lotzen zaio zango aldetik). Zu, Mixel, lot zaizkio otoi buru aldetik ! R.

R.: Ai ai ai !.. Ez, ez !.. Ez hola ! M.

A.: Nola ba ? R.

R.: Ez dakit !.. Bainan, ez hola ! M.

A.: Bon, Mixel, alda gaiten lekuz. Ean ba altxatuko dugun, zu zangotik lotuz eta ni burutik ! (Lotzen dira) R.

R.: Ai ai ai !.. Ez... Ez... Geldi... geldi otoi ! M.

A.: Nola nai duzu ba lot gaiten ? R.

R.: Zuk, ama, ask duzu fotoila gogor atxikitzea... Ai ai ai !.. Eta zuk, Mixel, har nezazu, ahalaz eztiki zure altzoan... Ai ai ai ! Zure beso bat pasa zazu ementxetik ! Hola ba !.. Bertzea, hortxetik... Ai ai ai !.. Ni lotuko naiz zure lepoari. M.

(Mixelik altxatzen du Roxali eta Roxalik, luzarako Mixelen altzoan egoitea gatik, amari fotoila, bi aldiz aldarazten dio.) R.
Ez hola fotoila, ama !.. Bo, ez hola ere !.. Hunarat itzul-azu ! Hola, hola ba ! A.

MIXEL : (Roxali pausatuz) Ez dautzuta sobera minik egin ! M.

R.: Ez... Milesker, Mixel... Beharrik hor zinen... Bizia salbatu dautazu ! R.

A.: Gizon besoak alabainan, emazteneri nausi ! A.

R.: O ama, Mixeli emozu zerbait edaterat ! R.

A.: Zer hartuko duzu ? Arno xorta bat ? Edo, naiago zinuke kopaño bat ?

R.: Ho, ama ! Egiozu kafe presa on bat ! Eta, nik ere hartuko dut, horrekin batean... Biotza arras joa baitut, uste dut on eginen dautala.

A.: Bon, ontsa da... Eginen dautzuet kafea bientzat.

M.: Ahatik, nik lanerat laster joan nai nuke.

A.: Joanen zira... Bereala zerbitzatuko zauztet. (Ateratzen da)

R.: Nausiari aski diozu erraitea nola deitu zaitugun. Ukanen ahal du aski biotz, konprenitzeko, ezin bertzez duzula zure lana utzi! Ez dakit zer bilakatuko nintzan, zu ez bazine hor izan.

M.: Izanen zen ba bertze bat ni ordaintzeko.

R.: Ez aise. Ez baitu nor-nahik zure beso-aira goxoa. (Eskuak hartzen diozkala). Eskuak ere biziki lehunak ditutzu.

M.: Hori, nekez ! Nere eskutako tinta ez da gero zuek ezpainetan ematen duzuen hura !

R.: Zer egiten duzu, heldu den igandean ?

M.: Ez dakit !.. Ez dut oraino hoinbertze pentsatu !

R.: Joaiten bagine biak balarat !

M.: Ez aise ! Ez baitut oto-permisarik.

R.: Oto-permisarik ez ? Zer gatik ?

M.: Polizak kendu daut ilabete batentzat, lasterregi nindoalakoan.

R.: Eta egia zena, lasterregi zindoala ?

M.: Ba zera ! Hori izan da mendekio bat ! Frantximent batzuekin kalapitan ari izanak ginen. Frantximent horiek,ez zezaketan jasan gu eskuaraz mintzatzea eta eskuaraz kantuz artzea. Erran diotegu zoazila nai bazuten Pariserat, hangoen manatzerat, bainan Eskual-Herrian gu ginela nausi.

R.: Eta, horren gatik dautzia permisa kendu ?

M.: Ez... Bainan poliza jin zen eta guri, Eskalduneri jazarri. Gu bezalakoen gatik, omen dira gaurko saltsa guziak, emen gaindi. Ihardetsi ginioten, ez baziren emen ontsa, aski zutela, hek ere, Pariserat joaitea... Orduan, begitan hartu naute eta horra zer gatik, permisa kendu dautaten.

R.: Ustelak !.. Joan-eta, nik ere erranen diozkatot bi hitz... Nik ere, zuk bezala maite dut gero Eskual-Herria !

M.: Horiekin ez duzu partidarik irabaziko.

R.: Ikusiko dugu norentzat izanen den azken tantoa... Bihar berean

joanen naiz zure permisa galdetzerat.

A.: Berdin du etxetik ez mugitzea. Sudurrerat irri eginen baitautzute !

R.: Neri irri ? Ageri da ez nauzula ongi ezagutzen ! Lot ditela niri trufaka ! Sartuko diozkatet ba nik trufak, muntatuko dioteten saltsaz !

A.: (Sartuz) Huna kafea... Zuk, Roxali, errazu nola nai duzun apailatzea hunen edateko.

R.: Utz nezazu nere gisa, ama. Apailatuko naiz Mixelekin.

A.: Nai duzun bezala ! (Ateratzen da)

R.: Otoi, Mixel, har nezazu gerritik eta altxa nezazu, hobekiago jarnadien.

M.: (Laguntzen du).

R.:(Mila mainekin, tink lotuz Mixeli) Hola ba !.. Oraino ere berritz Bertze indarño bat... Ean ekazu eskua !.. Ho, zer esku goxoa !.. Burua apaila datazu hobeki... Ez hola... Hola ba !

M.: Bon, ontsa zirea orai ?

R.: Ba, Mixel, biziki ontsa... Zu bezalako eri laguntzale bat, onhart nezake bizi guzikotz.

M.: Oas, emen nago, lana utzirik... Banoa, kafea bi urrupez edan-eta!

R.: Baduzu ardia, Mixel. Ezar-atzu otoi bi azukre nere kafean... Eta ikusiko duzu nik oto-permisa ardietsiko dautzutala. Eta gero joanen gira bi-biak balarat.

M.: Erraitea errax da.

R.: Otoi higituko duzia nere kafeko azukrea ?... Ongi urtua naite dut

M.: (Higitzen du Roxaliren kafea).

R.: Eta, bala ondoan, buruz-buru afalduko dugu. Hola ordainduko d utz hunat etorriz, galdu duzun irabaz-saria.

M.: Azukrea urtua da... Huna zure kafea.

R.: Otoi behar nauzu lagundu horren edaten. Aski dautazu esku batez burua altxatzea eta, bertzeaz, kikera ezpainetarat urbiltzea.

M.: (Galdegina obratzen du)

R.: (Bi urrupen ondotik) Orai zuk ! Zuk ere edan-azu urrupo bat nere kikeratik.

M.: Nik badut hor nere kafea !

R.: Ez... Nerea hobea da... Ale, urrupaño bat, neri atsegin egiteko. (Ematen dio edaterat).

nen baitautzu-

ot ditela niri
ko dioteten sal-

i duzun apaila-

in.

hobekiago jar

no ere berritz
esku goxoa !..

laguntzale bat,

rupez edan-eta!

kafean... Eta
. Eta gero joa-

rtua neite dut

dainduko d utz

u esku batez
rbiltzea.

rupa bat nere

egin egiteko.

M.: Bon beraz ! (Edaten du)

R.: Eta orai, zuk niri ! (ixelek ematen dio edaterat) Otoi emekiago !.. Lasterregi edan kafeak ez du gero gustu onik uzten (Edaten du) Ha, milesker... Orai nik zuri azken urrupa (Mardatua, Mixelek usten du kikera klikako batez). Ho, . zoin fite edaten duzun !

M.: Bon, lanerat joan behar dut. (Bere kikera usten du bi urrupaz).

R.: Hori duzia kafea edatea ?... Neretzat, hori da kafea irestea.

M.: Berdin du... Bon, oraikoan banoa.

R.: Ho, ez zira joanen kopano bat hartu gabe !

M.: Ez, ez dut koparik nahi... (Abiatzen da kanporat.)

R.: Otoi behar nauzu lagundu xutitzen. Nahi zaitut ateraino segitu.

M.: Ditutzun zauriekin, hobe duzu ez mugitzea.

R.: Ez... Kafeak on egin daut. Ikusiko duzu nola kurrituko dutan... Har nezazu gerritik.

M.: (Partzen du gerritik)

R.: Ale, goazen.

M.: (Ate ondoan) Bon, orai uzten zaitut.

R.: Ez oraino... Ho, hain atsegingarri izan zinneretzat ! (Leporat jauzi eginik, musu bat emaiten dio.)

M.: (Ez dakiela ze egin)... Bon, agur ! (Ateratzen da).

R.: (kanpoari mintzo) Eta igandean, jinen naiz eskual-kolorez arropaturik... Xuri, gorri eta ferdez !.. Agur !.. Igande artio (Agur goxo batzu igortzen diozka eskuz eta esku-musuz... Gero, xoria. bezain arin, eskual-dizka bat itzultzen du, berak kantatu dizkarekin.)

A.: (Sartuz) Yes !.. Ni orai mihikuketarat abian bainintzen, ez duzia geiago minik ?

R.: Ez ama... Joan zaut mina... Mixelek sendatu nau.

A.: Hauxe mirakuilua ! Bertzaldi bateko jakitea on da, Mixelek badaukala holako ahalak.

R.: Ama, zer diozu Mixelez ?

A.: Lutil zintzoa da eta langilea.

R.: Eta ez dakit ohartu ziren... Frantsesa badakielarik ni baino hobeki, beti eskuaraz mintzo da, nerekin ere.

A.: Ba ohartua naiz. Eta ere eskuara garbia mintzatzen duela, sigisaga frantses lerro batzu bere solasetan sartu gabe, orriko ainsgaztek egiten duten bezala.

R.: Hortakotz behar dut erosi eskual-gramatika bat, nik ere eskuara garbia mintzatzeko.

A.: Zuk eskual-gramatika ! Segur naiz, zoko batean ezarri-ta, ez dio zula sekulan so bat ere emanen !

R.: Ikusiko duzu, ama... Eta orai, joan behar dut poliz- txerat.

A.: Poliz-etxerat ? Zertarat ?

R.: Lixeli, gaxtakeriaz, kendu baitiote oto-permisa, behar diotet galdatu hura itzul dezaten.

A.: Eta nola ezetza segura baituzu, gero zer eçinen duzu ?

R.: Burutik behera zernai erranen diotet... Hori behingoan.

A.: Gaixo xoxola zu ! Uste duzia auzia irabaztea horien kontra ?

R.: Ez badut auzia irabazten ere, bederen leporaino nardatuko ditut.

A.: Ez gaitzatela beti gu, familiakoak, narda, zure ixtupakerien gati

R.: Nere familiak ez du deus ikustekorik nere eginkizunetan. Erroit zaite, ama, nere buruaren jabe izaiteko adinerat heldua naizela.

A.: Ba ba. Axtian ere adinerat heldua zinen, zulubitik erortzean. Bainan, halere zure amaren beharretan.

R.: Yes ! Ez ote da ama baten egitekoa , bere haurren laguntzea ?

A.: Ba, bainan zuri da haurrarena ez egitea, adindunen lerroan sartua zirenaz geroz !

R.: Ez zaitez akexa, ama ! Aski aundi naiz, nik urratuen, neronek peraxatzeko !

A.: Ikusiko dugu ! Agian ba !

- O I A L A -

-:-:-:-:-:-:-:-:-

ik ere eskuara

arri-ta, ez dioz

iz- txerat.

ehar diotet

uzu ?

n.

n kontra ?

rdatuko ditut.

tupakerien gati

netan. rroit
ldua naizela.

k erortzean.

laguntzea ?

lerroan sartua

n, neronek pe-

BIGARREN GERTALDIA.-

Joka-lekua - (Poliz-bulego bat - Kankail eta Pollit, erdi 10.)

KANKAIL - POLLIT - BITOR - ROXALI - JAKINPUTZ

KANKAIL : Zonbat orenak dira ?

POLLIT : Amekak.

K.: (Inharroska) Oraino oren bat emen egoiteko.

P.: Beharrik, aperitifa on batek atzarriko baigaitu apur baten buruan. Lasterka leher egin-arazi gaituzte atzo aratseko arrabotslari horiek !

K.: Nor ziren ?

P.: Bo, nik uste betikoak !.. Eskualdun banda hori !..

K.: Horiek ere beren politika... Irakurri duzia kapitainaren azken paper hau ?

P.: Ez dut astirik izan... Zer dio ?

K.: Azken uda huntan, gure kantoinamenduan, izan omen dira ehun eta zazpi ohointza... Bederatzi ohoin bakarrik arrapatuak ! Dionaz, arrapatu gutiegi omen da.

P.: Aski dauku hortarako laguntza emaitea. Hor ditugu zaintzeko otogidariak, mozkorrak, kanpotiarrak, drogatuak, gaxtagin mota guziak, zakurrak, pottokak eta nik dakita zer ! Nola nai duzu burutze egin ? Eta gainerat, hor ditugu orai, gu nardazteko, Eskualdun gazte horiek ere !

K.: Kapitainak dio lehuntxago jokatzeko horiekin.

P.: Lehuntxago ? Zer-gatik ez da goizako mintzatu ?

K.: Beren etxean direla-ta, egun batez, gaurko politika itzul ditakelata, zer gerta ere, ez horiekilako karta guziak errtzeko !

P.: Zuk uste duzia Eskualdunek ukanen dutela, egun batez, berengaintasuna ?

K.: Nork daki biharko berri ? Zure adinean, ni, Afrikan nintzen poliz-gizon. Orduan, hango gazteak, gaur emengoak bezalatsu zabiltzan.

BITOR.: (Presatuki sartuz) Mugi, jannak, mugi ! Otoa, etxeko atetik ebatsi dautet !

K.: Etxeko atetik !

B.: Ba, duela oren laurden bat. Hortakotz mugi. Lehailehen ezar trabak inguruko bide guzitan !

K.: (Deskantsuki paper bat hartuz.) Bon, izkirioz hartuko ditugu zure erranak. (Mintzatuz, izkiriatzen du.) Gaur, Abendoaren amazazpia, goizeko ameka ordutan, gizon bat jin da gure poliz-bulegorat. (Bitor-i) Nola ditutzu zure izen-deiturak ?

B.: Bitor Kalpatzar.

K.: (Izkiriatuz) Bitor Kalpatzar.

B.: Bainan, otoi Jauna, mugi zaite !

K.: Zoin lekutan bizi zira eta zer lanetik ?

B.: Oial saltzale niz, Errepublika karrikaren zazpian.

K.: (Izkiriatuz) Errepublika karrikaren zazpian, oial saltzailea. Bon ontsa da... Beraz oto bat ebatsi dautzute ! Noiz, nun eta nork ?

B.: Nik dakita nork ? Duela oren laurden bat, joan dautet etxe aintzinetik.

K.: (Izkiriatuz) Otoa ebatsi diote bere etxe aintzinetik, amekak laurden gutitan. Ebaslerik ez du ikusi.

B.: Ori, ema-zkitzu zure otoaren seinaleak.

K.: Fiat, lau jar-lekutakoa,urdinxka, K.4. ehun eta...

B.: Emeki otoi, emeki !.. Utz dezadazut izkiriatzeko astia ! Errai ten duzu beraz (izkiriatuz) Fiat, lau lekutakoa, urdinxka... Zer lumerotakoa ?

K.: K.4 ehun eta ogoi, iruogoi ta lau.

B.: (Izkiriatuz) K.4.120 - 64... Eta orai, mintza gaiten paperez !

K.: (Kexu) Bainan, zer demuntre, jauna ! Ez naiz hunat etorri paper zirrimarratzerat, bainan ohoin bat arrasta dezazuen galdatzerat !

K.: Otoi, ez gaitela kexa, jauna ! Nai nuke oraino jakin, ebatsi otoa norena zen eta nun aseguratua. Ekarri ditutzia karta grisa, permisa eta asegurantzako papera ?

B.: (Aserre) Ez, ez ditut ekarri ! Nork deubru pentsatu behar zuen hoinbertze paperen beharretan zireztela, ohoin bat arrapatzeko ?

K.: Ohointza da, jauna, jabetasuna ostikatzea.

B.: Badakit segur hala dela... Ez naiz hunarat etorria horren ikasterat.

K.: Jabetasuna ostikatua izan den jakiteko, baitezpadako da jakin dezagun nor den jabea.

B.: (Aserre) Erraiten dautzut jabea ni naizela. Nik dudala ostiko bat ukan. Eta galdatzen dautzut ostikoka ar zaiten, ez jabeari, bainan ohoinari.

K.: Ezti zaite, otoi, jauna ! Gure egiteko lehena da beti, segurtatzea ohointza bat izan dela. Segurtamen horren ondotik eta... bakarrik horren ondotik... gira entseatzen ohoina arrapatzerat.

B.: Eta beraz orai, zer egingo duzu ohoina arrapatzeko ?

K.: Bereala huntan, fitsik, janna, fitsik !

B.: Zeeer !

K.: Zer nai duzu egin dezagun ? Ez ditake lanik egin, gizonik gabe... Nun ditugu gizonak ?

B.: Gizonak ditutzueia eskas ?.. Bizkitartean, edozoin minixtro txar jiten delarik hunarat, bideak garreia-ala kaxketadun muntatzen ditutzue ! Zer da komedia hau ?

K.: Gure erreglamendua da hola... Badakizu, gu ez gira manatuaren mutil batzu baizik.

B.: Zer egin behar dut beraz orai ?

K.: Orai ? Zure aldetik ibil zaite miaka, zure otoa nun aurkituko duzun. Gure aldetik, begiak erne atxikiko ditugu. Eta, denborak irakutsiko du zertarat helduko giren.

B.: Beraz, arras debaldetan etorri naiz hunarat !

K.: Beharbada ba eta beharbada ez !

B.: Jakin izan banu ! Ez nintzen segur hunarako ! Agur ! (Ateratzen da)

K.: Agur !

P.: Harriturik nago nola hoinbertze xehetasunetan sartzen ziren, bi hitzez trenkatzeko orde auzilari horren kexua.

K.: Zer gatik emenda, goxa ditaken zauria ?

P.: Nik, gure ofizioari, goxamena baino larderia, hobeki joaki zaiola, iduritzen zaut.

K.: Goazen lehenik elez eta, heien hutsean, armez.

P.: Neskatxa bat heldu zauku. Ez da goizegi, hoinbertze ausinen artetik, lore bat agertzen baita noizbait hunarat. (Atea jotzen dute.)

K.: Aintzinat !

ROXALI.: (Agertuz) Agur, jaunak !

BIEK.: Agur, andere gaztea.

K.: Zer zaite ! Zerk zakartza hunat ?

R.: (Ilunki) Jauna, gertatzen zaut gaitzeko naigabe bat.

K.: (Keinu eginez Pollit-i) Jaun huni agert-ozkitzu zure arrangurak

P.: Zer nai zinuen gure ganik ?

R.: Atzo aratsean, mutil bat arrastatu duzue eta oto-permisa kendu diozue ilabete batentzat.

P.: Merezi zuen bezala... Erroa bezala baitzoan bere otoan... Eta gero, anderea ?

R.: Gertatzen dena da, mutil hori dela nere gizongeia.

P.: Haa ! Zu zinena harekin otoan, arrastatua izan delarik ?

R.: Ez... Ez mintzan ni !

P.: Bizkitartean, mutil horrek erran daut, sahetseko lagunarentzat, bere emaztegaia zela.

R.: Polizak ez du satzerik gure arteko gorabeheretan.

P.: Gu zertan sartu beharrez, jina zira ba hunarat ?

R.: Nere gizongeiak, oto-permisa arras beharrezkoa du, lanean erabiltzeko.

P.: Bai, eta ere gu nardatzeko.

R.: Nere gizongaiarentzat, otorik ez ukaitea, diru galbide andi bat da.

P.: Eta guretzat, bake andi bat

R.: Badakizu zonbat xahupide dituzten ezkontzerat doazinek !

P.: Permisa kenduz, ezantzari emaiten diozuen dirua, eskutan geldituko zautzue.

R.: Ezantza ez dugu debaldetan erretzen, bainan gure beharren zer bitzuko.

P.: Ba, eta maizago, bestan eta triguan erabiltzeko.

R.: (Bizi-bizia) Noiz ikusi gaitutzu, gu, triguan erabiltzen ?

P.: Barda-aratsean azkenik, arramantzaka hor ibili baitzirezte, zuek bakarrik nausi bazinezte bezala emengo ostatu eta plazetan !

R.: (Emendik aintzinat, kalapita doala emendatuz.) Ba, emengo gazten zafratzeko hobeak zirezte, zuek ere, ohoinen arrastatzeko baino...

P.: Gure arropa errespetatuko duzu gero, eta hanbat gaxto zuretzat.

e bat.

zure arrangurak

)-permisa kendu

e otoan... Eta

.a.

lelarik ?

lagunarentzat,

u, lanean era-

albide andi bat

azinek !

eskutan gel-

beharren zer

abiltzen ?

aitzirezte,
tu eta plaze-

a, emengo gaz-
arrastatzeko

gero, eta han-

R.: Zuen arropa errespetatzen dut, bainan ez horrek tapatzen uen ustelkeria !

P.: (Izigarriki kexu.) Zeer ! Gu ustelak ! Zato hunarat bereala preso. (Nai diozka eskutan gateak eman).

R.: (Gateaz urrunduz). Neskatxeri jazartzeko hobeak zirezte ba, mandileri baino !

K.: (Pollit lagunduz) Ale, komedia guti gu-ekin. (Borroka bat muntatzen dute.) Gateak eta preso !

R.: Alfer tzarrak, zuek ! Gutaz baliatuz bizi zirezten zorriak !

P.: Mari-mutiko piltzarra ! Zakur uharra zikina (Eskuak gatetan ezartzen diozkate.)

R.: (Pollit-i ausiki alimale bat egiten dio ipurditik.)

P.: (Izigarriko oihu-tan) Ai, ai, ai...

K.: Zer duzu ?.. Zer duzu ?..

P.: Ipurditik ausiki egin daut !.. (Lotzen da Roxaliri iletarik tiraka eta nai liozke paso batzu eman) Urdaiñ pozoinatua !

K.: (Pollit-i eskua hartuz, keinu egiten dio, ez dezan jo Roxali.) Min ainitz egin dautzia ?

P.: Ez duzia ikusten odola heldu zautala !

K.: Zu neskatxa, preso !.. Ale, preso !..

R.: (Alegia flakatua, bere burua erortzerat uzten du.)

K.: Ha deubrua ! Ongi amonatzen gaitu !

P.: Ziminokerian ari da gu engañatzeko ! Emotzu bizpairu zaflako eta berebaitaratuko da !

K.: (Fultsoa ikertuz).. Kasu eman dezagun nola gabiltzan !.. Neskatxa bat, bi gizonen artean, auzi gaxtoa guretzat. Zernai gerta ere, mihikua bereala deitzen dut. (Telefonatuz) Jakinputz !.. jaun mihikua!.. Bai ni bera.. Nai nuke hunaraino jiten bazine. Bereala ba... Ba, bi urratsetan zirenaz geroz !

P.: Odola ez zaut gelditzen !

K.: Harri berarekin bi xori, aski diozu zure mina ere irakustea mihikuri.

P.: Mihiku zozo hortan nik fidantzia guti daukat.

K.: Kentzen diozkat gateak neskatxa huni, ez baita gomeni mihikuak hola estekatua aurki dezan. (Kentzen dioka)

P.: Ez ahal da bederen errabiatua, hola lotzeko ausikika, zakurra bezala !

K.: Hortakotz ere, hobe duzu lehenbailen zure burua mihikuren esku-tan ezartzea. (Roxaliri, ileak antolatzen diozka.)

P.: Izan dea, egun hautan, deus arrangurarik zakur errabiatueri bu-ruz !

K.: Ez preseski... Bainan batere ez dakigu zer ziren eta zoin, atzo hoinbertze ardi xahutu dituzten zakur horiek.

P.: Deus onik ez dut igurikatzen. Ez dakit, ez dakit, bainan ni bel dur oro, zakur beren ondorioa dela... Errazu, diotenaz, errabia nek ez omen dute ura ikusi nai ere... Eskaintzen banio ur xorta-bat...

K.: Eskaint-ozu !

P.: (Ateratzen da eta bereala sartzen, baso bat urekin... Ura nai lioke Roxaliri edan-arazi, bainan hunek ahoa tink hetsia beira-tzen du, orro batzu adiaraziz.) Ha, ez du edan nai !.. (Hetsi-tua) Segur bat eta erdi naiz, errabiatua dela !.. Hau ere beraz-neretzat zen !.. (Ateratzen da, apur baten buruan berritz sartz

K.: Huna Jakinputz, jaun mihikua... Aintzinat jauna, aintzinat !

JAKINPUTZ.: Agur, aintzindari jauna !.. Zer gertatzen da emen ?

K.: Neskatxa hau, zonbait galde egiten ginioskala, flakatu zauku !

J.: (Roxali ikertuz.) Eman diozueia kolpe gaxtorik ?..

K.: Ez jauna, d.. doa zartzailkatu bakarrik.

R.: (Intzirinka) Ez da egia !... Jo naute.

K.: (Aserre) Gezur ziria hori !..

R.: Eskuak, gatez estekatu dauzkitet.

K.: Ba, ezin atxiki baiginuen bertzela. Zalapartako lotu zauku eta nere poliz-lagunari ipurditik ausiki egin dio...

J.: Ipurditik ausiki ?

P.: (Ilun) Ba jauna, ba... Horra odola... Behar nauzu, ni ere ikertu, hunen ondotik.

J.: Kontent naiz, arras kontent. Nere jakintza berezia da pzika-naliza eta gertakizun hau da neretzat interesgarriena !

P.: Ez da bederen errebiatua ?

J.Hori ere, ditakena da. Bainan goazen urrats-ka. Freud, gu, psi-kalalizten nausi andiak dio, edozoin gaitzen ukaldiak behar direla ikertu "ante crisis", "in crisis" eta "post crisis"... Erran nai baita gertatu aintzin, gertatzean eta gertatu ondoan... Nik jakin nai nukena da nola zen neskatxa hau "ante crisis", huna-rat jin aintzin.

P.

ıa mihikuren esku-
zka.)

errabiatueri bu-

en eta zoin, atzo

it, bainan ni bel
diotenaz, errabia
en banio ur xorta

ekin... Ura nai
ink hetsia beira-
nai !.. (Hetsi-
!.. Hau ere beraz
uan berritz sartz

a, aintzinat !

zen da emen ?

flakatu zauku !

?..

lotu zauku
io...

zu, ni ere

zia da pzika-
rriena !

ud, gu, psi-
ak behar direla
"post crisis"...
tatu ondoan...
crisis", huna-

: Nik ez dakit, bainan hunarat etorri da, oto-permisa bat baitezpada behar zuela. Nola ez baiginion eman nahi, zainetakoek hartu dute.

: Ba, bainan, beharbada ere, zakur errabiatu zonbaitek ordukotz ausikia zuken.

: Beraz, ez dakigu xuxen zer gatik neskatxa hau gertatu den "in crisis". Edo errabiatua delakotz, edo oto permisaren gatik... Beraz, emaiten badiozue bere oto-permisa, gauzak argituko dira.

: Nolaz hori ?

: Hortan dena bururatuko baita eta segur izanen baigira, ez dela errabiatua. Aldiz, errabiatua balinbada, berritz ere ausikika lotuko da.

: Beraz, zuk diozunaz, oto-permisa behar diogu itzuli.

: Hori zuek ikus... Nik, nere ikusbidea agertu dut, eta orai, ez dut joaitea bertzerik...

: Eta ni ? Ni, ez nauzu ikertu !..

: Hori ere hala da... Zato nere etxerat... Han artatuko zaitut. (Ateratzen ari direla, Bitor sartzen da, hats-hantua)

ITOR.: Mugi, jauna, nere otoa aurkitu omen dute, bide hegian, arbola baten kontra xehatua...

.: Ha, ikusten duzu ez ginaudela zure otoa zaindu gabe !

.: Zeer ?.. Nai nuke jakin zertarik duzuen nere otoa zaindu ?.. Barneko arruda eta puska guziak, ebatsiak omen dira...

.: Otoi, Bitor, erramen diozuia nere amari, hunarat etor dadien nere billarat !

.: (Ohartuz Roxali ere han dela) Zu emen, Roxali ?.. Zer ari zira emen ?

.: (Aserre gorrian Roxaliri) Zuk bakea, eta berritz ere, bakea guri! (Eskutarat oto-permisa aurtikiz) Hori zure oto-permisa zikina eta kanporat hemendik !

.: (Ateratuz, azpi-irri maltzur batekin) Agur Bitor !

.: Bon, behar ditut paperean ezarri, zuk eman xehetasunak... Beraz zinion zure otoa arrapatua izan dela... Nork, nun eta nola ?..

- O I A L A -

IRUGARREN GERTALDIA.-

Joka-lekua - (Kanpo-alki baten gainean, amoroski jarriak dagotzi Mixel eta Lili.)

MIXEL - LILI - CLOCLO - POLLIT - ROXALI - JAKINPUTZ.

MIXEL.: Plaza huntako jar-leku guziak hartuak dira. Ni beldurrez gaituztela alki hau, guretzat bakarrik, luzaz utziko.

LILI.: Agian, hortxetako gizon piltzar hori, ez zauku etorriko jartzerat, gure ondorat.

M.: Etortzen bada ere, jasan beharko, xutik ez egoitekotz... Ba, axtian erraiten nautzun, nola Roxalik harritu nauen... Ez nuen uste holakoa zela... Laparra bezala lotu zaut... Zubitik eroria zela-ta, deitu naute altxatzerat... Biziki min omen zuen. (Irriz) Uste dut bere min larriena zuela, ni bere ondoan ukaiteko naikundea.

L.: (Maleziatsu) Ba, eta zu kontensko ! Aitor-azu neri baino grazia go aurkitzen diozula Roxaliri.

M.: (Maleziatsu) Ba, zu...Lili. Hura aldiz Roxali... Arrosa eta Lili

L.: (Eztiki matelan joz) Itsusia zu !

M.: Eta zu, pollita !

L.: Eta Roxali, ez duzia geroztik ikusi ?

M.: Ez bainan, erran zautan, gaur nai zuela nerekin joan balarat eta ondotik, nerekin buruz-buru afaldu !

L.: Eta zer ihardetsi zinion ?

M.: (Irriño batekin) Baietz ba, atsegin nukela, halako neskatxa pollit batekin ateratzea.

L.: (Maleziatsu) Zer gatik etorri zira berzz ni ganat ?

M.: Ez baitzaut agertu ere nere amorant xarmanta... (Irriz) Ta, nahi-tez, lehengo xaharraren ganat itzuli behar !

L.: (Zaflako ttipi bat emanez) Ez dautzut geiago kasurik eginen ! Itsusia zu !...(Biak irriz, buruak urbilduz... Orduan agertzen da Cloclo, bere buruarekin marmarian, zigarro erren muturrak biltzen dituela lurretik.) Ez ahal da, herresta hori, jartzerat jinen gure alki huntarat !

M.: Jiten baten, goazen guretik, bakarrik bagine bezala.

L.: Ba, bainan nola jasan horren usaina ?

M.: Aski duzu, zuk duzun on hortarik gehixago ixurtzea eta ez du-

n, amoroski jar-

JAKINPUTZ.

. Ni beldur ez
az utziko.

uku etorriko jar-

tekotz... Ba,
auen... Ez nuen
. Zubitik ero-
min omen zuen.
re ondoan ukaite-

eri baino grazia

. Arrosa eta Lili

joan balarat

ako neskatxa

t ?

(Irriz) Ta,
!

urik eginen !
Orduan ager-
ro erren mu-
rresta hori,

ala.

ea eta ez du-

gu deus sentituko. (Biak irriz)

.: Oas, gure lagunak han dabiltza ba, orai, beren ototan, Jainkoak daki nun !

.: Ba, neri ere Roxalik ardiestekoa zautan oto-permisa. Baietz eta baietz, segur zen nere permisa ukanen zuela polizaren gainik.

.: Beharrik ez du ukan; Bertzeaz, han izanen zinen nunbait harekin.

.: (Irriño batekin) Eta zu hemen, nigarrez eta jelosiaz urtua. (Apur bat ixilik, Cloclo-ri so.)

.: Heldu zauku gure ondorat gizon barrabas hori.

.: Egin dezagun hor ez balitz bezala.

LOCLO.: (Beti bere buruarekin marmarian, jartzen da, bi gazten ondoan. Jan nahi luke. Nun-nahitik jan-edanak jaliz, bere apairua muntatzen du bere inguruan. Trago batzu, botoila tututik eginez, jaten lotzen da.) Bi musukari, nere lehen auzo... Bon, ar ditela musuka, hola artzeak asetzen dituenaz geroz. Nik bertzerik behar diat asetzeko... Zardin zahar bat... Lukainka mutur bat hobe ! Gasna... Ogia... Arnoa... Ez duk hain gaizki nere janaldia !.. Saka gezurrak, saka elgarri, amorosak ! Aski goiz, biziak salatuko dautzue egia ! Gaur mu su-joko eta bihar mutur-joko ! Harako polizgizon asto hark, ez ahal naik hemen jaten ikusiko ! Bazakiat, hi, kaxketadun, ez dela aizu alki hunen gainean jatea... Ostatuetan ere, ez ditek ba nere gutiziarik ! Zer behar diat ba : Komunetarat joan, jateko ere ?

.: So egiz u ! Hortxetako polizgizon gazte horrek kendu daut oto-permisa ! Ustel zikina !

.: Guri so eta so dago. Zer ote du hola gu begiz iresteko ?

.: Datorla dator auziketarat ! Ukanen ditu inbidoen idukiak !

.: Otoi, Mixel, ez zaitela horiekin saltsan sar ! Badakizu holako gizonekin ez ditekela irabaz partidarik !

.: Beti irabaziko dute, ez bazaiote nehor bihurtzen !

.: Guri buruz heldu da ! Otoi, ez zaitela asalda, Mixel !

OLLIT : (Agertuz, Cloclori) Errazu, zu ! Ez dakizuia debekatua dela jatea leku huntan ?

.: Nori zer kalte egiten diot nik, leku huntan janez ?

.: Alki hau, deskantsatzeko leku bat da eta ez, jateko mahain bat. Ez zatzula narda hemen jarriak daudenak.

.: Ez gaitu den gutienik nardatzen. Bada hemen, hau baino nardagarriagorik !

.: (Mixeli lotuz) Otoi, Mixel !

C.: (Janez, Polliti mintzi) Errak to, hi, ez banauk hire legearekin adoptean, aski dautak amanda bat emaitea. Dakikan bezala, sakelak diruz beteak ditiat eta bereala pagatuko haut...

P.: Ez zaitela gero nitaz trufa, zorritsu zikina !

C.: Hail hire amaren ganat, zorri kantzeko orraze baten billat. Harek baditik. Ez haut aitaren ganat egortzen, ez baitatik nor den

P.: Mihi madarikatua ! Nere arropa errespetatuko duzu gero !

C.: Hik ere ba nerea... Nere zorriak utziz berengisa.

P.: Bon, oren laurden bat emaiten dautzut leku hau husteko. Eta, ez baduzu obeditzen, otoa hartu-eta, preso sartuko zaitut. (Ateratzen da.)

C.: Hobe segurki. Teilatua eta jana urririk, ez zaitak usu gertatzen

M.: (Cloclori) Ezagutzen duzia polizgizon hori ?

C.: Ba, xakur koxkor bat. Nausiek huiatuz geroz, saingatu behar.

M.: Ta, zer sainga meharrak !

C.: Mundua hola duk ! Xakur horiek eta horien nausiek, mundu hau apailatu ditek beren gisan... Berak dituk jale,ta gaineratekoak horieri jan-fornitzale...Nola ez baitiat zerbitzatu nahi horien mundua, hortakotz nauk bizi horien mundutik kanpo.

M.: Eta zure bizitzekoa nundik biltzen duzu ?

C.: Ahal dudan tokitik, to... Gehienetan horien beren ganik.Bainan nere aldetik, ez ditek deus ukaiten.

M.: Zer begi gaxtoa egiten dautzun polizgizon horrek !.. Hori, pinta bat arno pagatzen dautzut, oihu egiten badiozu : Gora Euskadi !

C.: Nola erran duk ?

M.: Gora Euskadi !

C.: (Ozenki, bi eskuz ahoa inguraturik.) Gora Euskadi !.. Gora Euskadi !

P.: (Agertuz, errabian) Zer erran duzu ? Nork manatu dautzu oihu hori botatzeko ?

C.: Zerak !.. Hire kapitainak !

P.: Ixilik egonen zire gero, hemen politika saltsarik muntatu gabe !

C.: Eta hi nork manatu hau, "Gora Euzkadi", oihu egiterat ez uzteko ?

P.: Ez naiz ni politikan sartzen.

M.: Zer gatik berrz duzu "Gora Euzkadi" oihu egitea debekatzen ?

C.: (Mixeli) Barka-zok gaizoari. Bere eskolan, hola dik ikasi.

k hire legearekin
an bezala, sakelak
..

baten billat. Ha-
baitatik nor den

uzu gero !

a.

husteko. Eta, ez
zaitut. (Ate-

tak usu gertatzen

ingatu behar.

k, mundu hau apai-
aineratekoak ho-
tu nahi horien
po.

en ganik.Bainan

k !.. Hori, pinta
: Gora Euskadi !

di !.. Gora

dautzu oihu

k muntatu gabe !
terat ez uzte-

debekatzen ?
dik ikasi.

.: (Aserre gorrian) Hanbat gaxto zuentzat, nere bidean kausitzen ba zauztet ! Jakin zazue presondegia ez dela egina arratoinentzat ! (Ateratzen da)

.: Ba, preseski, gauak freskatzen ari dituk. Hotelak ez ditiat maite, eta, fite, jaun horietarat joan beharko diat, ganbara eske.

.: Hori anartean, hitzeman dautzutan pinta arnoaren saria.

.: Milesker eta hire zerbitzuko, nahi dukalarik, irabazi berean, lan bera egiteko.
(Apur bat ixilik)

.: Ho, Mixel, so-egizu nor heldu den !

.: Nor ?

.: Horra hortxet Roxali. Guri buruz heldu da.

.: Zertan ote dabila hemen ? Egin dezagun ez-ikusiarena.

OXALI.: (Agertzen da eskualdun koloretako arropez jauntzia... Ez dago bere zainen jabe. Urrundik, eztul batzu eginez, entseiatzen da han dela salatzerat. Nola bi gaztek ez baitiote kasurik egiten, azkenean oihuz Mixel deitzen du.)
Mixel, o Mixel!

.: Zer da ?

.: (Hotz eta motz) Zato otoi hunaraino !

.: Zu zato hunat !

.: (Ez daki zer egin.) Zure oto-permisa hemen dut ! Orroit zaite nola hitzartuak ginen elgarrekin.

.: Hitzartuak ? Zertaz ?

.: (Jartzen da Mixelen ondoan, Mixel dela bi nesken erdian. Emeki-emeki Mixeli hurbiltzen zaio, bainan Mixel Gero-ta-geiago Roxalitik urrunduz joaiten da Liliri buruz.)
Hitzartuak ginen, nik otopermisa ardiesten banuen, biak joanen ginela balarat eta gero, buruz-buru afalduko ginuela.

.: Nik ez dautzut holakorik hitzeman. Zuk ba atera zintuen holako solasak.

.: (Asaldatua) Zer ! Ukatuko duzia zure besotan goxoki atxiki nauzula ?

.: Nik,nere besotan hartu zaitut bakarrik, zure amak eskaturik, zu lurretik altxatzeko !

.: (Xutituz) Ba, eta ukatuko duzia musu ere eman dautazula ?

.: Nik ez dautzut musurik eman. Zuk ba, niri, bat ebatsi.

.: (errabian) Ha, hola duka hire hitza atxikitzen... (Oto-permisa

porroskatuz eta zangopilotuz) Horra zer egiten diaten hire oto-.: I
permisaz... (Liliri) Eta hi, denenbesotako oilo tzar piltzarra, I
zer uste dun ? Neri gizongeia ebatsi-ta, lumarik galdu gabe ate I
rako hizala ? (Lotzen zaio iletik tiraka eta atzaparka.) I

M.: Emeki gero, zu, ergel xoroa ! (Pusako batez, botatzen du Roxali .: I
alkiaren gainerat.) I

P.: (Lasterka heldu da) Hep, hep ! Zer ari zirezte hola ? Presò, .: I
preso denak ! I

M.: (Lili besotik hartuz) Zato fite ! Goazen emendik (Ateratzen di- .: I
ra) I

R.: (Errabian alki gainean... Eskutan dauka, Liliren burutik hartu .: I
duen zerbait apaindura) Zikina ! Ustela !... I

P.: Oraino ere zu !.. Zer ditutzu manera horiek ? Ez zirea ahalge ?.: I

R.: Arrasta-zkitzu hek !.. Hek biak ! Hek, zuen kontrarioak dira.. .: I
Ni zure aldekoa naiz ! I

P.: Zer, nere kontrako ala aldekoa ? .: I

R.: (Pollit-i leporat jauzi eginez) Ba, ni zure aldekoa naiz... Eka .: I
zu musu. Vive la Police Française !(Ausiki egiten dio mazelatik I

P.: (Orroaz) Ai-ai ! Berritz ere ausiki egin daut !.. Zakur errabia .: I
tu madarikatua !.. I

JAKINPUTZ.: (Agertuz) Zer da ? Zer gertatzen da hemen ! .: I

P.: Berritz ere ausiki ein daut, jaun mihikua ! Oraikoan, mazela- .: I
tik ! I

J.: (Roxaliri) Zer ari zira hola, Roxali ?.. Zer daukazu buruan ? .: I

R.: (Jarria, erdi nigarrez) Nik maite dut polizgizon hori ! Hain ma .: I
dut nun jan nahi bainuke. I

C.: (Irri karkailaz) Polizgizon baten burua nahi duzia jan nahi, .: I
neskatxa maitea ! Zer apetitua ! I

J.: Ha ikusten dut ! Dena garbiki ikusten dut ! .: I

P.: Ez da bederen errabiatua ! I

J.: Ez ! Orai segur naiz ezetz... Freud, gure nausi andiak dio : .: I
Errabiatua denak ez duela nehorentzat maitasunik. Neskatxa hu- I
nek zuretzat agertzen du maitasuna... Beraz ez da errabiatua. I

P.: Zer du ba hola ausikika artzeko ? .: I

J.: Neskatxa hunek ez du errabia, bainan amodioaren errabia... Ez .: I
bata gauza bera. I

P.: Nork ikusi du maitake bat ausikika artzen maite duenari, odola .: I
jali artarino... I

en diaten hire oto-
llo tzar piltzarra,
rik galdu gabe ate
eta atzaparka.)

botatzen du Roxali

e hola ? Presò,

dik (Ateratzen di-

ren burutik hartu

Ez zirea ahalge ?

ontrarioak dira..

ldekoa naiz... Eka-
iten dio mazelatik

!.. Zakur errabia-

men !

raikoan, mazela-

laukazu buruan ?

on hori ! Hain mai

uzia jan nahi,

i andiak dio :
ik. Neskatxa hu-
da errabiatua.

errabia... Ez

duenari, odola

.: Dena da nundik egiten den ausiki... Gizonak baditu lau mazela : Bi beherean eta bi gainean. Behereko mazeletan ausikitzen da etsaigoz... Gaineko mazeletan aldiz, amodioz.

.: Eta, behereko eta gaineko mazelean ausikitzen zaituztelarik, zer erran nai du horrek ?

.: Horrek erran nai du, zure kasu huntan, etsaigoa bihurtu dela amodio.

.: (Ahapetik) Ba, nik maite zaitut !

.: (Irriz) Nik ere maite ditiat xingarra eta matel-kailuak !

.: (Aserre Cloclori) Zu ixilik, ez bainaiz ni jostagura ! Edo, hor berean, kalitzen zaitut gero !

.: Otoi ixilik... Orai behar dugu makurbide hau xuxendu... Neskatxa hau da "in crisis"... Nere egitekoa da, nola kendu huntarik "in crisis" hori eta nola sortu "post crisis".

.: Aski diok zizari belarra emaitea !

.: Neskatxa hau sutan bezala da. Sua hiltzeko molde hoberena da kontra-sua piztea.

.: (Su pizteko bat paztuz, bere zigarretarentzat) To, nik emanen zioiat kontra-sua... Errak nundik !

.: Neskatxa hunen kontra-sua, zu zira Pollit jauna. Zuri litake neskatxa hunekin ez gobernatzea bortizki, bainan lehunki, eztiki, solasak goxatuz. Ez dea hala, neskatxa ?

.: (Ahapetik) Ba, ba, nik maite dut Pollit jauna.

.: Hola denez geroz , xuti zaite neskatxa, hurbil zaite Pollit Jaunaren ganat eta emozu musu goxo bat.

.: (Neskatxak musu ematen diola.) Zeer ! Nitaz trufatzen ziztea ala zer !.. Zer da komedia hau !

.: Xo, Pollit jauna ! Ez zaitela hola bihur.. "Post-crisis" bidean arras polliki sartuak gira. Ez zazula hauts bide hori... Ale, ale... Eta orai, goazen iruak hemendik, aperitifa bat hartzerat (Ateratzen dira)

.: (Bakarrik eta irri karkailaz)
"In crisis","post-crisis", ausiki han-dik, musu hemendik, gatu horrek badik bertze buztanik .

- O I A L A -

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

LAUGARREN GERTALDIA.-

Joka-lekua (Lehen gertaldikoa)

AMA - ROXALI - SEÑORA SUPERIORA - OMONIERA - JAKINPUTZ

AMA .: Eta orai zer !

ROXALI.: Ez neri geiago gizonik aipa... Denak berdinak dira. Denak, su berean erre behar liezken egurrak !

A.: Zertan zira Mixelekin ?

R.: Ezkontzerat omen doa. Ni baino naiago du, zerri bazkatzen bertzerik ez dakien Lili tuntuna hori !

A.: Zoin gaxtoa ziren !

R.: Hala da eta ! Ez ote da zerri hazle baten alaba ?

A.: Eta, aipatu baizinautan polizgizon bat, zertan zira harekin !

R.: Egorri dut antzara ferratzerat. Nik maite nuela erran-eta, beti bere poliz-erreglamendua zautan aipatzen. Erreglamendua errespetatuz, behar omen nuen maitatu. Poliz-jauntzian delarik, ez haren ganat hurbildu. Kantoinamendutik kanpo joan behar, harekin amodio urratxetan ibiltzeko, nik ez dezaket jasan hola, dena xifratua eta neurtua den amodioa.

A.: Bon bon... Gazte zira ! Ez izan presatuegia ! Gaur ez bada bihar aurkituko duzu zure goştuko senhar-geia !

R.: Zure betiko leloa da hori, ama ! Bizia luze dela... Behar dela ezkondu, oro ontsa pisatuz... Hobe dela mutzurdin egoitea, ezkon dohakabe bilakatu baino... Kontseilu horiek, ber balioa zuten zure gazte denboran ere ! Zer gatik ba ezkondu zinen, ogoi urteak bete gabe ?

A.: Nik suerte ona ukan dut, senhar on batekin erori bainintzen.

R.: Eta nik, zer gatik behar dut ukan baitezpada suerte gaxtoa ?

A.: Zu ere, noizbait amatzen bazira, ni orai zuri bezala, mintzatuko zira zure haurreri.

R.: Ez du irriskurik.

A.: Zer gatik ?

R.: Ezkontzari uko egiteko xedea hartua baitut.

A.: Zuk, ez-ezkontzeko xedea hartu ? Noiz artio ?

R.: Otoi, ama, ez zaitela nitaz trufa ! Zintzoki mintzo naiz.

..: Eta, ez ezkontzekotan, zer bideri lotugo duzu ? Ala konmentuan sartzekotan zira ?

..: Ba, seror egiteko xedea hartu dut.

..: (Irriz)

..: Otoi, ez imirik egin ! Ala zer ? Serora guziak ez ote dira, ni bezala, neskatxa gazte izan, arropa hartu aintzin ?

..: Bai, bai, haurra !

..: Eta seroretan badira ere, gaxtagin izanik, konbertituak.

..: Bai-ta ere !

..: Ni, ez naiz gero, mutilekin nolanahizka ibili ! Nere burua beti errespetarazi dut gero !

..: Baietz ba, haurra !

..: Eta xedea hartua dut, ez sartzeko edozoin komentutan, bainan komentu zerratu batean... Hola, bakea ukanen dut gizonen aldetik ! Ez bainaute geiago ikusiko !

..: Eta zuk ere ez, hek !... Eta noiz-tsu izanen da zu komentuan sartzeko egun aipagarri hori ?

..: Ez dakit oraino... Apur baten buruan jitekoak ditut hunat, serora superiora eta jaun omoniera, hortaz mintzatzerat !

..: Bon bon... Sar zaite beraz komentuan... Gerokoak gero... (Ateratzen da)

..: (Bakarrik... Jaunzten du matzi-zai bat... Mirailari behatuz, buruan ezartzen du oialezko korona xuri bat... Haren gainetik, oial beltz bat... Gerrian ezartzen du larruzko uhal bat, arrosario luze batekin. Gero, beti mirailari behatuz, harat et hunat dabila, belaunikatuz, eskuak juntatuz et holako serora jestu batzu eginez... Atea jotzen dute)
Aintzinat !

SERORA SUPERIORA.: (Agertuz) Jainkoak daitzula aratsalde on, Roxali !

R.: Zuri ere bai, andere superiora (Superiorarekin dituen solas-aldiketan, Roxali agertzen da, jada seror apal bat balitz bezala.)

S.S.: Hauxe zer jauntzi bitxitan kausitzen zaitudan !

R.: Ba, orai beretzat nai diotet uko egin mundutiar arropa ergeleri !

S.S.: Hori ere zerbait bada ! Bainan, ez da aski arroparen aldatzea, munduari uko egiteko !.. Beraz, serora bilakatzeko naikundetan zira ?

R.: Ba, andere serora, Jainko onak hala nahi badu.

S.S.: Baduzia asmorik, nola ditaken serora zerratuen bizia ?

R.: Ez dakit geiegi ! Nik nai dutena da Jaindoarekin bizi, munduti bazter.

S.S.: Ba, bainan ez pentsa komentuan, bakarrik izanen zirela Jainkorekin. Serora buruzagiak ukanen ditutzu... On zirea heieri, apal eta ixil obeditzeko, berdin manatuko dautzutelarik lakez zautzun edozer lan ?

R.: Ez da beti errex izanen !... Enseiatuko naiz.

S.S.: Zure lagun geienak izanen dira adin puxko batekoak. Berdin batzu gitez bitxituak edo mingotuak. On zirea horien jasaite eta maitatzeko ?

R.: Egin-ahalak eginen ditut.

S.S.: Komentu zerratuko erreglamendua da, zortzi oren otoitzeko, zortzi oren laneko eta zortzi oren lo egiteko. On zirea, egun guziz, zortzi orenez egoiteko, gogoz eta otoitze gure Jainkoa adoratzen duzula ?

R.: Ez naiz hortan biziki entseiatu. Halere uste dut baietz.

S.S.: Komentuan dira denak batentzat eta bat denentzat. Ez zautzu aizu izanen deuseren jabe izaitea. Soineko arropak berak, ukanen ditutzu, xortean tiraturik, izan diten ala ez zure gostukoak.

R.: Gostako zaut hortaratzea, bainan ez zaut iduritzen ezin-egina dela.

S.S.: Zure letra guziak izanen dira irakurtuak, bai igorriak eta bukanak. Bisita guziak ere neurtuak eta zainduak.

R.: Presondegian bezala beraz.

S.S.: Bai, Roxali, komentua da Jainkoaren presondegia. Horrarat sartzen da, ez gaxtagin zirelakotz, bainan gaxtaginentzat penitentzia egiteko. Horko gateak, Jainkoarenak direlakotz, dira gatlehun goxoak.

R.: Gateak ez ditut maite, bainan entseiatuko naiz heien jasaiterat.

S.S.: Horra, haurra, zertarat joaiten den komentu zerraturat... Sakrifizio eta gurutzerat, Jainkoa zerbitzatzeko eta gizonen salbatzeko. Hortakotz on da komentuan sartu aintzin, zure gogoetak egin ditzatzun.

R.: Zuk eman xehetasunekin, andere serora, badut nun zer pentsa.

S.S.: Nere iduriko behar zinuke, komentuan sartu aintzin, urtetsu batez zure burua frogatu. Hemen bertan egon, bainan serora bezalatsu biziz, ama obedituz, ixiltasun eta otoitzari jarraikiz, lanari ere ba. Mundukeriak bazterrerat utziz eta jendekin guti gurutzatuz.

R.: Ez da errex izanen munduan bizitzea, munduarekin har-emanik gabe.

ekin bizi, munduti

anen zirela Jainko
On zirea heieri,
autzutelarik lake

atekoak. Berdin
ea horien jasaitel

oren
en lo egiteko. On
gogoz eta otoitzez

dut baietz.

ntzat. Ez zautzu
rropak berak, uka
la ez zure gostu-

zen ezin-egina de

i igorriak eta ba
uak.

gia. Horrarat sar
ginentzat peniten
elakotz, dira gat

heien jasaite-

zerraturat... Sa-
o eta gizonen
aintzin, zure

un zer pentsa.

intzin, urtetsu
bainan serora
otoitzari jarrai
utziz eta jende-

in har-emanik ga-

.S.: Hortan zurekin ados nago. Hortakotz egina da komentua ; Mundu huntan bizitzeko, bainan mundutik berax... Orai badakizu norat zoazin, komenturat sartuz. Eman zaite oso-osoa Jainkoaren eskuetan. Harek egorriko dauzkitzu bere indar eta argi bereziak.

.: Ontsa da, andere serora !

.S.: Beraz, uzten zaitut... Noizean behin itzuliko naiz zu ganat, ikusteko zertan ziren. Eta, egun guziz, otoitz eginen dut zuretzat.

.: Badut segurki beharra. Milesker, andere serora.

.S.: Ez da zer, Roxali. Bertzaldi bat artio !

.: Ba, bertzaldi bat artio, andere serora (Ateratzen da... Roxali, jarririk, apur bat egoiten da burua bi eskuen artean eta gero, irri karkaila batzu eginez, amari oihuz.)
Ama, o ama ! Zato hunat bereala !

.: (Agertuz) Zer duzu haurra ? Bainan zer duzu holako irritan ? Burua galdu duzia ala zer ?

.: Ama, bereala ekazu edari goxotik ttotta on bat ! Eta, soineko arropa hau kendurik, behar dut bereala jauntzi nere armarioko mirzai airosena.

.: (Edaria zerbitzatuz) Bainan, ezti zaite, haurra ! Zer gertatzen zautzu ? Zer erran dautzu andere serora horrek ?

.: Nik ez dakit nungo leize ziloan bizi den serora hori, bainan dakirena da ez dutala nahi horrek aipatu bizi-molderik.

.: Beraz, ez zirea geiago serora sartzeko xedetan ?

.: Ez, ama, miletan ez ! Gisa hortako komentuan segurik ! Apur baten buruan, jaun omoniera jinen baitzaut, hari erranen diot nolakoa nai nuken neretzat komentuko bizia. Nik nai bezala, har edo utz, ukanen du hautua. (Badoa aldatzerat)

.: (Bakarrik) Har edo utz !.. Uste balinbaduzu orai asiko direla zure neurrituko komentu baten muntatzen ! Komentua, komentu da. Hek ba dautzute erranen : Har edo utz ! Edo bertzelaz, behar litazke zonbat serora-gai eta hainbertze komentu. Eta, zu zirenarekin, ez zinezake luzaz iraun, ez-eta-ere zeronek zuretzat muntatu komentu batean. Zu zira aldaxka gaineko xoria. Apur bat egoiten zira jokabide batean, bainan apur bat baizik ez. Zure peko-aldaxka jotzen duen lehen aizeak, bertze aldaxka beterat airazten zaitu.

.: (Agertuz.) Bururatu ditutzia zure aize-marmariak, ama !

.: Zuretzat aize-marmariak, bainan berez... egiak (Ateratzen da)

.: (Mirailaren aintzinean apaintzen da mudutiarki, joan-jin batzu eginez, jada matzizaiekin ibili den bezala. Norbaitek atea jotzen du.)
Aintzinat !

OMONIERA.: Agur, andere Roxali !

R.: Agur, jaun omoniera ! Zer diozu nere arropa huntaz ?

O.: Zure arima, arropa hori bezain pollita balinbada, aingeru bat rela .

R.: Uste nuen beltzuri eginen zinuela, serora-gei bat, holako jaun tan ikus-eta.

O.: Laket zaut Jainkoak beretzea kreatura pollitenak !

R.: Bon, atsegin egin dautazu lausenguz. Orai zerbitza nezazu egiz. Zer pentsatzen duzu arropa huntaz ?

O.: Egitik nai duzunaz geroz, huna zer duten pensatzen : Arras ongi beztitua zirela, mutilen tentatzeko. Arras gaizki, heien ongira tzeko... Dena da zer nahi duzun !

R.: Nik nai dutena da seror egin. Bainan, ez axtian hunarat etorri den, moda zaharreko seror horietarik. Horien izpiritua baita, dena gurutze, sakrifizio eta holako mamutzez betea. Iduri dute bizirik lurperatuak.

O.: Eta nolakoa nai zinuke izan dadien, zuretzat on laitaken komentua ?

R.: Nere komentua nai nuke, zerrakurarik gabea... Kanpoz eta barnez airosa. Horko serorak liezke gaurko emazte eta neskatxak bezala beztituak...

O.: Orai, zu bezala ?

R.: Zer gatik ez ?.. Bakotxak, bere ganbera apaint lezake, bere gos tuaren arabera. Aizu liezke han sartzerat, bere adixkide eta ez gunak.

O.: Mutilak ere ba ?

R.: Zer gatik ez ? Ala, mutilak direa pozoindunak ? Komentu hartan baliezke bil-tokiak, ahusa-lekuak, ostatu bat ere.

O.: Bala-toki bat ere, erran gabe doa !

R.: Zer gatik ez, hura ere ? Gazteak biltzen diren lekuan, dantza ez ote da beharrezkoa ?

O.: Hango serorek baluketea erreglamendurik ?

R.: Bakotxari litake bere erreglamendua egitea eta hari jarraikitze Serorak ezkont liezke, bainan ezkondu naiko luketenek, beharko kete komentua utzi.

O.: Ni beldur zure komentu hori laster erreko lantekela, lastoa eta sua hola hartan metatuz.

R.: Komentu hori ez laiteke lastozko serorentzat, bainan fedezko su errerik daudenentzat.

untaz ?

ada, aingeru bat z

bat, holako jaunt

nak !

bitza nezazu egiz.

tzen : Arras ongi
zki, heien ongira

n hunarat etorri
zpiritua baita,
tea. Iduri dute

n laitaken komen-

Kanpoz eta barnez
neskatxak bezala

lezake, bere gos-
e adixkide eta ez

? Komentu hartan
ere.

lekuan, dantza

hari jarraikitzer
etenek, beharko l

kela, lastoa eta

bainan fedezko su

O.: Bai bai... Ez da holako komentu eskasik bazterreta-n

R.: Nun ? Badea bat hemendik hurbil ?

O.: Roxali, ba. Holatsuko komentuak dira, dirutan truk, beren gorp.. tza eskaintzen duten, neska galduen etxeak.

R.: (Bizi-bizia) Zer nauzu ni ? Neska galdu batentzat hartzen ?

O.: Ez Roxali, bainan zure ametsetako komentuaz dautzut nere ikusbi.. dea agertzen.

R.: Bon, hoin hertsia denaz geroz Eliza katolikoa, ni protestant e-- giten naiz.

O.: Ez duzu batere xede makurra... Ahatik, protestant zintzo izaibe.. kotan. Segur Jainkoari laketago zaio protestant zintzo bat, ezc netz katoliko faltso bat.

A.: (Sartuz) Barkatu otoi, bainan Jakinputz jaun mihikua hemen da. Roxali, zu behar omen zaitu lehenbailen ikusi.

R.: Sar-araz zazu !

A.: (Ateratzen da)

JAKINPUTZ.: (Sartuz) Agur, jauna omoniera ! Agur, Roxali !

BIEK.: Agur, jaun mihikua !

J.: Roxali, Polizak eskaturik heldu naiz, hurbildik ikert dezatan ean errabiaz joa ziren, ala ez.

R.: Ni errabiatua ? Badutea burutik !

J.: Nere segurtamena da, ez duzula errabiarik, bainan nahi dituzte frogak.

O.: (Irriño batekin) Zure pzikanalizako jakintzak badia zer ikusi-rik errabiarekin !

J.: Bai, jauna omoniera. Freud gure nausiak dio, guti gizon dela errabia bil dezakenik. Zer gatik hori ?.. Zeren-eta errabia ba.. titazke bakarrik, zakurretik jausten diren gizonak.

O.: Eta, zakurretik jausten ez direnak, nundik jinak dira ?

J.: Edozoin bertze alimale motetarik.

O.: Banakien gizonen artean badela asko zakur eta xakur... Orai kon-prenitzen dut zer gatik.

J.: Pzikanalizten asmoa da eritasun guziek, etorkizunean dutela be-ren iturburua. Gure odola da errekako ura bezala. Urak sortu den lekuko eta iragan dituen bidetako on-gaitz guziak. Halabe.. gure odolak. Ditakena da beraz-bainan ahatik frogatzekoa Roxa-li dela ausikilaria, bere etorkizunean baduelakotz zakur-odola.. tik.

O.: Eta ostikolarik, zer dira ? Mandotik jausten ?

J.: Mandotik edo bertze zonbait aberetarik. Ez baitira mandoak bakarrik ostikoka artzen.

O.: Beraz Roxalik ez du deus hobenik, norbaiti ausiki diolarik egiten? Orduan, zer gatik huni egor poliza ?

J.: Mundu huntan, nehor ez da deusetaz hobendun. Gure jokabide guziak, on ala txarrak, heldu dira gure odolatik. Hortakotz, nehork ez du merezi gaztigurik. Gaxtoa den jendea, ez da gaztigatu behar, bainan sanotu, haren gaxtakeriaren erroak atzemanez eta artatuz. Hori da pzikanalizten asmoa. Hori obratuz baita gaurko mundua berrituko eta onduko.

O.: Banoa hemendik, jaun mihikua. Ez bainaiz arras ados zure errane-kin, ele nahasitan sar gintazke eta beldur naiz, ez ote dautazun aterako, nere odola heldu dela oilo koloka arroltzetik ! Agur beraz ! (Ateratzen da)

J.: Apez gaizoa ! Ona da, bainan gaurko jakintza berritarik, arras bazter bizi dena... Bon, bainan ez dut ahantzi behar, zurekin egitekoa duten lana... Behar nuke baitezpada zure pixa analizatu.

R.: Zeer !

J.: Ba, zure pixa analizatu, ikusteko ean zakurrenekin baduenetz ahaidetasunik.

R.: So egizu, jaun mihikua. Ez zira hunat jina, nik galdeturik. EZ naiz ni, demendrenik, ez pzikanaliza, ez eta ere pix-analiza beharretan.

J.: Bainan, polizari zerbait froga behar diot eman, ez zirela errabiatua.

R.: Aski diozute baso bat pitar eremaitea !

J.: Bainan, zure onetan ari naiz !..

R.: (Orroaz) Orai aski eta aski ! Izigarriko tirria heldu zaut zuri ere ausiki egiteko ! Zoazi fite hemendik ! Senditzen dut ez naizela geiago nere buruaren jabe !.. Zoazi fite !

J.: (Ikaratua, ihes egiten du) Ezti zaite ! Banoa.. Ezti zaite !

R.: (Bakarrik.. Apur bat so dago gibeletik mihikuari.. Irriz populuari.) Nere arbasoak, zakurrak balinbaziren, horrenak segur erbiak zitazken !

- O I A L A -

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-

BORTZGARREN GERTALDIA.-

Joka-lekua (Aintzineko bera)

AMA - KANKAIL - POLLIT - OMONIERA - MIXEL - JAKINPUTZ -

AMA : (Bakarrik, lanean ari... Atea jotzen dute.) Aintzinat ! (Sartze dira Kankail eta Pollit.)

BIEK.: Agur, anderea !

A.: (Beldurti) Agur, jaunak ! Zer, zer da ? Zerbait gertatu da ?

KANKAIL : Ez anderea ! Ez izi ! Ez da deus makurrik gertatu ! Zure alaba Roxalirekin nai ginuke mintzatu !

A.: Zer egin du ?

K.: Deus andirik ez !.. Ez kexa !..

A.: Ez da hemen... Ateraia da eta ez dakit noiz artio !

K.: Aipatu dautzia nola zakur bati ausiki egin dion ?

A.: Gure Roxali, zakur batek ausiki ? Nungo zakurrak ?

K.: Ez, ez dio zakurrak Roxaliri ausiki egin, bainan Roxalik zakurrari.

A.: Zer da bitzikeria hori ?

K.: Bitzikeria, bainan egia... Mixel tindatzaileak badu xakur xuri ttipi bat. Bere nausiaren aintzinean, zuen Roxalik hartu du zakur hori bi beharritarik, ausiki egin dio muturretik eta sudur puska bat kendu.

A.: Bainan, bainan, ezin sinetsia da !

K.: Lekukoak badira.

A.: Eta zer ondorio duke egitate horrek Roxalirentzat ?

K.: Mixelen ganik auzia segur du eta Alimalen Gerizalari Batasunaren ganik ere ba. Basa behar baita izan xakur bat hola xahutzeko.

A.: Nai nuke egia jakin, Roxaliren ahotik. Hain baitzaut akusamendu hori zentzurik gabekoa.

K.: Harritzen zirea ? Roxalik, jada bietan, ausiki egin dio nere lagun polizgizon huni. Zauri horiek itsuski gaxtatu dira. Eta nola orai, zakur bati egin baitio ausiki, ikaretan gira ez ote den Roxali errabiatua.

A.: Errabiatua ! Roxali errabiatua ! Bainan, nun zabiltzate ?

K.: Ba, eta bertzalde, mihíkua egorri diogu, ikert zezan ean errabiatua den... Bainan Roxalik ez du bere burua ikertzerat utzi nahi. Eta gainerat mihikuari ere ausiki egin nahi zion.

A.: Zer dira ixtorio horiek guziak ! Bainan, burua galtzekoa ere bada ! Edo, arras burtxoratuak zabiltzate, edo... nik ez dakit zer pentsa !

K.: Zure alaba ez ote da bederen drogatzen !

A.: Zeer ! Gure Roxali drogatzen ? Hori ere bai ote, konduen gaineko?

K.: Gaurko gaztetan bada gero denetarik, eta, nehork uste ez duena da drogari emana.

A.: Roxali nerekin bizi da. Egun guziak elgarrekin paiten ditugu. Ez zaut iduritzen, nik baino hobeki, gure Roxali ezagutzen duenik, norbait izan ditakela.

K.: Gauzak ez dire berdin ikusten etxeko eta kanpoko begiz. Dena den, gu bagoazi. Bainan Roxaliri erranen diozu, bere onetan, lehenbailen etor dadien gu ikusterat.

A.: Ez duzue bederen gaizki erabiliko ?

K: Ez... Ez da hori gure jokabidea. Galdatuko dioguna, bakarrik da, mihikutarat joan dadien, mia dezaten ean errabiatua den ala ez.

A.: Nik, Roxaliri eginen diot zuen komixionea. Bainan, ihardespena bere gain da. Badakizue, adinetarat heldua da eta nik ez dezaket herrestan ekar zuen ganat.

K.: Errozu etor dadien bere onetan, bere onetan ! Eta, agur anderea !

P.: Agur anderea !

K.: Agur, ba, jaunak ! (Bakarrik) Egi andia da, haur egin zuenak, lan egin zuela. Eta ere, haurrak hazi eta grinak asi ! Mundu hau sobera laster doa. Norat joan ikusteko, gaztek eskas begi eta zaharrek ezin segi. (Atea jotzen dute) Aintzinat !

OMONIERA.: (Agertuz) Agur, anderea !

A.: Agur, jaun omoniera. Tenore onean heldu zira. Bakarrik naiz eta .. nere buruarekin erasian ari, ez baitakit nola goberna Roxali.

O.: Nik ere, atzo, handiskoak bota niozkan. Geroztik, Roxaliz mintzatu naiz serora superiora-ekin. Hunentzat, ez omen ditake hain mamiż-hutsa, Roxaliren bokazionea. Hortakotz berritz heldu naiz, zure alabaren xedeak behar ditudala hobeki zilatu.

A.: Otoi beregisa utz-azu, Roxalik bokazionea duelako asmoa. Atzo, komedia bat muntatu dautzue, bai zuri eta bai andere serorari. Zuekin nai zuen ahusatu eta bertzerik ez.

O.: Ha bon, on da jakitea !

A.: Nik ez dakit zer daukan buruan haur horiek. Batean ezkonduko

eta bertzean seror egingo duela. Gaur aingeru eta bihar Jeubru. Hor dabila jauzika astotik zaldirat eta zalditik astorat !

O.: Zorigaitzez, gaurko ainiz gazte hortan dira, Eskual-Herrian berean ere. Fedea eta eskualdungoa ahulduz geroz, bere zimendu baliosenez gabeltzen da hemengo gizon-bizia. Hortakotz dira ikusten, gure artean hoinbertze gazte, ez baitakite zeri lot beren bizia. (Atea jotzen dute)

A.: Bertze norbait ere badugu hemen. (Oihuz) Aintzinat !

MIXEL : (Sartuz) Agur jaun omoniera ! Agur anderea!

O.: Agur Mixel !.. Bon, ni banoa ! Geroxago berritz itzuliko naiz.

M.: Nere gatik egoiten ahal zira, jaun omoniera. Bi hitzez erranak ditut erraitekoak.

O.: Ez ! Roxalirekin mintzatzerat jina nintzen. Nola ez baita hemen, geroxago berritz etorriko naiz. Agur beraz bieri !

BIEK : Agur bai, jaun omoniera !

M.: Ni ere, zu nardatzerat heldu naiz ba !

A.: Bainan, zer gertatzen da Mixel ? Axtian bi polizgizon izan dira hemen eta erran dautet gure Roxalik, zure zakurra ausiki duela. Jakin nai nu ke egia, den bezala !

M.: Egia hauxet da : Ate bat tindatzen ari nintzen, nere xakurra ondoan. Roxali hurbildu zait ! Nik ez nion kasurik egiten. Nere xakurra joan zaio zangotarat. Bi beharritarik haurtu du eta, hort kolpe batez, sudur muturra kendu dio.

A.: Bainan, zer gatik egin du basakeria hori ?

M.: Nik dakita ? Beharbada errabiaz, ez niolakotz berari kasurik egiten.

A.: Eta, ausikiaren ondotik, solas eman diozia ?

M.: Ez... Xakura, odoletan eta marrumaz, etxerat sartu baita, ni ere barnerat sartu naiz, madarizione batzu botatzen nintuela.

A.: Jesu, Jesu ! Nork behar du pentsatu ere, zakur bati ausiki egitea ?

M.: Ba, bainan gertakari hunek badu bere ondorioa ! Nere xakurra irakutsi diot mahaxelari. Eta hunek erran daut baitespadakoa dela mihikuek ikus dezaten ean Roxali, ez ote den errabiaz joa. Berak, polizari bereala telefonatu du, erranez zer gertatzen den. Eta nere xakurra bahitu daut, Roxaliren gorabehera ikertu artio.

A.: Hoooo ! Jainko ona !

M.: Horra zer erraiterat etorria nintzen. Gertatzen denaz, otoi, jakintsun egizu Roxali. Eta, erran gabe doa, bere gain izanen direla xakurrarentzat egin gastuak. Pena dut ez baitut zuri emaiteko berri hoberik.

A.: Hola balinbada, eskuarrez zabiltza.

M.: Beraz, orranak erran, huntan uzten zaitut.(Ateratzen da)

A.: Agur, ba, Mixel ! (Bakarrik) Neska filda !.. Datorla dator ! Nago, zer karta dituen jokatuko, onaiko huntan, ni balakatzeko... Ha, ikusten dut heldu dela.

R.: (Sartzen da.)

A.: (Samur) Errazu, Roxali, poliza eta Mixel tindatzailea izan dira hemen. Zer dira zakur ixtorio horiek ?

R.: Ha, horren gatik jin direa ? Ez bide zuten bertze egitekorik !

A.: Ez da hori axaletik hartzeko gertakari bat. Zer egin duzu ?

R.: Fitsik, ama fitsik... Mixelek huiatu daut bere zakur txarra. Nola berrikitan nunbait irakurtua bainuen, zakur baten izitzeko molderik hoberena dela, berari muturretik ausiki egitea, nik halaxet egin diot. Eta, ez dut hortaz demendreneko dolurik.

A.: Zuk diozu Mixelek huiatu dautzula bere zakurra. Harrik dio, zakurra, bere baitarik dela zu ganat hurbildu.

R.: (Samur) Errazu, ama, ez nezazula ni narda, bi sosen aipua balio ez duen gertakizun horrekin. Hala, zer duzu ? Mixel, zure alaba baino maitago ?

A.: (Boza ozenduz) Ez dut onhartzen hola mintza zaiten... Segur naiz, Bihar berean, kazetagiziek zabalduko dutela berria.

R.: Eta gero ? Nik hortaz, zer hoben dut ?

A.: Bertzalde, polizak galdatzen du lehenbailen ospitalerat joan zaiten, ikertu behar omen baitute, ez ote ziren errabiatua.

R.: (Errotua) Ama, bakea eni ! Bakea gero zure analiza, ospitale eta botika horiekin... Sobera balinbanaiz etxe huntan, aski duzu erraitea... Lekuak hustuko ditut !

A.: (Bortziki) Zerbait erasia entzun ordu, ez duzu bertze ihardespen k:"Bakea neri !.. Leku hauk hustuko ditut !" eta holako... Aski ditutzu beraz hustea. Eta, zuk ere, bakea eni !

R.: (Harritua) Zeer ! Zu ? Zu, ama, hola mintzo ?

A.: Ni ba, ni ! (Ateratzen da)

R.: (Nigarrez) Ikusten dut ez nauzula geiago maite !.. (Apur baten buruan, fermu eta hotz.) Ha baia ! Sobera niza etxe huntan ! Bereala nere burua garbitzen dut... Bala bat aski da hortako... Nun da gure errebolbera ?.. Ha, huna emen ! (ESkutan hartzen du, bainan bereala uzten, beldurrezko grimasa bat eginez) Ez hunekin... Puah ! Dena odola gero !.. Bertze zerbaitekin. Ha, huna soka ! Sokaz ba ! (Soka lotzen du, frango behera den itze ahul bati... Lepotik ezartzen du urka-bihurria.) Bon, gauden prest... Entzuen dutalarik ama heldu dela, orduan emanen naiz zintzilik.

Ha, heldu da. (Bere burua zintzilik emaiten du, bainan tiroak ez du jasaiten bere karga eta oro lurrerat erertzen dira. Roxali, jarririk dago, soka lepotik, mihia tiraka eta orro batzu entzunaraziz, urkatzen ari balitz bezala.)

A.: (Sartuz) Zer ari zira hola ?.. Bainan, zer ari zira ? Ez du balio ez, hola mihi tiraka artzea !.. Ez duzia ikusten soka laxoan duzula !

R.: (Intzirinka) Leku hauk husteko erran dautazunaz geroz, nahi ditut betikotz hustu.

A.: Xuti zaite hortik, ergel txarra zu ! Ez zirea ahalge holako xorakeritan artzeko zure adinean?..

R.: (Xutituz, erdi nigarrez) Eta, zu, ez zirea ahalge, ama !..

A.: Ni ahalge ? Zertaz ?

R.: Ikusten duzu zure haur bakarra, hetsitua, bere buruaz bertze egiterat doala eta solas goxo bat ere ez duzia haren kontsolatzeko ?

A.: Orai zabiltzea nere kontsolamenduen eske ? Ez ote dautazu miletan erran, ez zinela haur bat ! Ez zinuela eskatzen ni ganik, ez kontsolamendurik, ez-eta kontseilurik... Antola-zkitzu ile horiek, pixka bat, zu, xoxo lehena ! (Ateratzen da)

R.: (Bere burua eta ingurua ordrean emanik, jartzen da... Apur bat dago gogoetan.) Ha, hori dea ? Sakatu behar diot gezur bat ikaragarria... Gezur bat, min eginen baitio, ni hiltzeak baino geiago.

A.: (Sartuz) Apur baten buruan, segur hemen izanen duzu poliza.Onez edo bortxaz, gizon horiek eremanen zauzte. Prest egoiten ahal zira.

R.: (Eztiki, iduriz hemabetua) Ama !

A.: Zer duzu ?

R.: Zerbait gorde dautzut !

A.: Zerbait gorde ? Zer !

R.: Ez zirea samurtuko ?

A.: Samurtu ala ez, mintza zaite.

R.: Ama ! Ahalge naiz erraiteko.

A.: Bainan zer duzu ? Ez ditut maite ixtorio-mixterioak ! Erraitekoa, erran gabiki !

R.: Ama, esperantzetan naiz !

A.: Zeer ?

R.: (Erdi nigarrez) Ba, ama, esperantzetan naiz !.. Ez zaitela otoi samin !

A.: Esperantzetan zu ?.. Zu ?.. Atzo azkenik zinion, zure burua beti errespetarazi duzula, seror sartu behar zinuela !.. Eta gaur, esperantzetan zirela ! Gure zeuko Jainko ona !.. Eta jakiten ahal duta haur horren aita nor den !

R.: Mixel lindatzailea !

A.: Ha... Halere nunbait hor. Ez baita bederen gizon ezkondu bat edo emaztekari galdu pirtzil bat !

R.: Ba, bainan Mixelek ez du nerekin ezkondu nahi !.. Horra, ama, nolakoa den, zuk estimu handitan daukazun mutil zintzo hori !

A.: Ez bazaitu maite, ongi egiten du zurekin ez ezkontzea... Bainan, pentsatzen dut lagunduko zaituela haur horrem hazten.

R.: Uste balinbaduzu haur hori mundurat etorriko dela !.. Erremedioak ere hor dira gero, ama !

A.: Zeer ! Ahuleziaren gainerat krima ! Baduzia burutik ? Jin dadiela haur hori mundurat, eta, ez balinbazira gai horren haztеko, nihaurrek haziko dut... Bon, horra nun heldu den, berritz ere, jaun mihikua.

R.: Ni gordetzen naiz, Dagola hemen, apur bat, nere goheit (Jalitzen da)

A.: Aintzinat !

JAKINPUTZ.: Agur, anderea !

A.: Agur, jaun mihikua !

J.: Oraiko aldian, polizarekin heldu naiz Roxaliren billat. Bi polizgizon hor daude atean. Edo, etorriko da, onez-onean, nerekin, edo, bortxaz hartu-eta joanen dute.

A.: Nik ez dezaket hortan deus, jaun mihikua. Bertzalde, mihiku bezala eta sekretuan jakin behar duzuna da, Roxali esperantzetan dela !

J.: Hobe segurki !

A.: Hobe !.. Hobe diozuia !

J.: Ba, hola denaz geroz, nere pzikanalizari buruz, horren kasua miletan interesago baita...

A.: Nahiago nuke bertze interesik agertzen bazinu haur horrentzat... Eta, ez baitago bere zainen jabe, ahalaz polliki goberna zaite horrekin. Duela apur bat, bere burua garbitu nai zuen.

J.: (Eskuak torratuz) Izigarri interesanta ! Ez izan beldurrik ! Zure alabarekin har-emanetan sartuko naiz, udaberriko arrosa bati ekar nezoken jokamolde berarekin.

A.: Egortzen dautzut bereala (Jalitzen da)

J.: (Bakarrik) Freud, gure nausi handiak zion : Ume beharretan den behia... zezenez betea... Ibil gaiten berez lehunki.

R.: (Sartuz, errebolbera eskuan, errabi gorrian mintzo) Nork erran dautzu zuri, ni ganat jiteko ?

J.: (Ikaratua) Ezti zaite, otoi ! Ezti zaite !

R.: Zer, ezti eta ezti zaite ? Leporaino asea naiz zure pzikanaliza zozoarekin ! Zure jakintza eta jats-giderrarena berdintsu dira. Ez dezaket jasan begien aintzinean, zu bezalako gizon tetele-putzik!

J.: Otoi, otoi!.. Ezti zaite, Roxali.

R.: Zoazi hemendik bereala edo errebolber huntaz burua erretzen dautzut

J.: (Zangoak daldaretan, erortzen da erdi flakatua !)

A.: Ama sartuz tira-ala) Haurra ! Bainan, bainan zer egin duzu ?

R.: Zuk, ama, errozute kanpoan diren bi panderu horieri, jin diten "paketa" hunen hartzerat... Joan dezatela ospitalerat. Nik, ez dutala horien beharrik harat joaiteko. Joanen naizela nihaurre ! (Jalitzen da.)

A.: (Ateratzen da eta berritz sartzen, Kankail eta Pollitekin.) Ez dakit, jaunak, zer gertatu den hemen. Fitsik ez dakit. Kalapita zerbait izan bide dute beren artean. Roxali, jali da arranez ospitalerat bera joanen dela.

POLLIT : Ez dio bederen ausiko egin huni ere ?

A.: Ez, ez dut uste !

K.: Bon karga dezagun mihikua eta joan lenbailehen ospitalerat. Gerokoak gero ! Lot zaite zangotarik, Pollit.
(Iruak ateratzen dira)

R.: (Zango punttetan sartuz, irriz dago, leihotik so) Hau ere ez dea gertakari pollita ! Mihikua jin, eria ospitalerat joaiteko, eta eriak egorri mihikua ospitalerat ! Holako mihikuakaz duela tirrit balio : Horra nere pzikanaliza !

A.: (Sartuz) Zu hemen, Roxali ?

R.: (Alegera eta maleziatsu) Zure ondoan goxoki, amatto maitea ! Eta, ez dezagun odol gaxtorik egin... Gezurra erran dautzut gero esperantzetan nintzela. Barka zadazut, otoi !

A. Zeer !

R.: Ba, ez naiz batere esperantzetan, eta, ez nuen demendreneko gogorik nere burua urkatzeko.

A.: Bainan, ni zertaz hartzen nauzu ? Zer kopeta ? Eta zer birika !.. Zertan zaude hemen, ospitalerat joan gabe eta noiz artio ?

R.: Oiloak pixa egin artio, amatto, eta ez minuta ba gio !

A.: Nago, zerk zaituen hola bihurritzen !

R.: Errabiak, amatto, errabiak !

A.: Nik ez dakit noren odoletik ziren zu !

R.: Nork jakinen du, zuk ez jakitekotan ?

A.: Bakea neri zure ergelkeriekin, ez bainaiz batere jostakurean !

R.: Ez, amatto, ez uste izan hain desberdinak girela, zu eta ni. Desberdinak dira bakarrik, zuk onhartnen duzun mundua eta nik amesten duten mundua !

A.: Zer erran nahi duzu ?

R.: Erran nahi dut, amatto, zure jokamolde dela : Lan egin, dirua irabaz eta ongi bizi. Arima gabeko diruzalek muntatu zuten gaurko gure mundua. Zu hortan sartu zinen, hortan bizi zira eta hortan hilen zira... Mundu hori onhartua duzu eta ez dezakezula bertze biderik har diozu. Zure baitakoari, behin betikotz uko eginik, zure bizia jokatzen duzu, bertzek zuretzat tiratu marreri jarraikiz.

A.: Eta nuzk, zure bizia, nolakoa ikusten duzu ?

R.: Nik, nahi dut amets pixka bat nere bizian... Maitasunari berea eman. Denak dabiltzan erreketarik atera. Jenden errankizunen gainetik hegaldaka ibili... Neronek ideki bidexkeri jarraiki. Mundu huntako otsoek sudurkatuko ez duten xokoño maite, gorde eta apaindu bat, neretzat eta nihaurrek muntatu. Zonbait gizon bakarrek, ororen biziari ezarri marretarik kanpo, nere partida jokatu. Horra, ama, nere ametsa. Zure munduan ez nintake laket. Bertze mundu bat behar dut nik !

A.: Bertze mundu bat !.. Amets egitea errex da, bainan zuk ametstu mundurik nehun ez da !

R.: Ba, ama ! Ametsak ez dira huskeria hutsak... Ni segur naiz... Nik amesten dudan mundu hori, nunbait bada !

- O I A L A -

1.970 eko Buruilan

P.LARZABAL

ZOKOA.-

-:-:-:-:-:-:-:-:-:-